

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

BERMEOKO UDALA

2018-2022 PLANGINTZALDIA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN TESTUINGURUA

3. METODOLOGIA ETA PROZEDURA

4. DIAGNOSTIKOA

LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia
2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harremanak

BIGARREN ARDATZA: LAN HIZKUNTZA

3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo harremanak
6. Kudeaketa sistema

AMIA MATRIZEA

5. ERABILERA PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

6. HIZKUNTZ IRIZPIDEAK 2018-2022

LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia
2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harremanak

BIGARREN ARDATZA: LAN HIZKUNTZA

3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo harremanak
6. Kudeaketa sistema

7. ADMINISTRAZIO ATAENSAILKAPENA
8. LANPOSTU ZERREDA

1. SARRERA

Txosten honetan jaso dugu Bermeoko Udalaren Euskara Normalizatzeko Plana. Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen udalean, eta jardun hori hobetzeko zer pauso eman behar diren. Horrez gain, UEMAREN irizpideak jasotzen dira txostenean, haiek izango baitira erreferentzia ibilbide guztian. V. Plangintzaldirako plana 2013ko abenduaren 23an onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta 2014ko urtarrilaren 9an berretsi zuen udalbatzak.

2018-2022 artean izango du balioa txosten honek, eta urtez urte kudeaketa plan bat egingo zaio, eskuartean duzun plan honetan zehaztutako helburuak betetzeko ekintzak definitzeko.

Udaleko Euskara Sallak eta UEMAK egin dute plana elkarlanean, eta horretarako udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan du. Udal langile eta ordezkari guztiei zuzendutako plana da, behin plana udalbatzak onartuta, denen ardura izango baita bertan jasotzen diren irizpideak betetzea.

2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZAKO PLANAREN TESTUINGURUA

EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen** V. titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio prozesuaren oinarri ere badira.

Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio prozesuak izan zuen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen.

Horrez gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, udala partaide den **Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak** (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Horiek horrela, UEMAk euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan, eta lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko **86/1997 Dekretuak**, apirilaren 15ekoak (dekretuak indarrean jarraitzen du eta VI. Plangintzaldiak

2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du), elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauak.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman ziren euskarazko hizkuntz gaitasuna zuten langileen kopuruan. Bigarren plangintzalditik aurrera, administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra ageri da.

Horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Euskara planaren **helburu nagusia** da udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza, bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Helburu horiek lortzeko, Bermeoko Udalak indarrean izan du V. plangintzaldiko 2013-2017 epealdirako erabilera plana. Epeak jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak ezartzen ditu. Plana plangintzaldiko lehenengo urtean onartu behar zen (hau da, 2013an). Urte horretan Bermeoko Udalaren Tokiko Gobernu batzarrak onartu zuen eta 2014ko urtarrilean berretsi zuen Osoko Bilkurak. 2018an VI. plangintzaldia hasi da, eta 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

VI. plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzak hainbat gida-lerro zehaztu ditu, arlo hauetan jauzi kualitatiboak emateko:

- Hizkuntza eskakizunak
- Borondatetik haragoko hizkuntza politika
- Berriazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntza
- Euskarazko komunikazioak
- Ahozkotasuna
- Itzulpen politika
- Dokumentuen estandarizazioa
- Kalitatezko komunikazioa
- Komunikazio digitala
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak
- Langile eta hautetsi etorri berrientzako protokoloa
- Prestakuntza orokorra
- Kontratazio irizpideak

Horrenbestez, udalaren erabilera plan honetan gida-lerro horiek lehentasunezkoak izango dira.

3. METODOLOGIA ETA PROZEDURA

VI. plangintzaldian udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehazteko, ezinbestekoa da egungo egoera zein den jakitea; hau da, udalaren hizkuntz erabileraren diagnostikoa egitea.

Diagnostikoa egiteko, **Bikain deialdiaren autodiagnostikoan** oinarritu gara. Diagnostikoaren baitan, ez da laginketarik egin. Laginketak plan estrategiko honen jarraipena izango diren urtez urteko kudeaketa planetan txertatuko ditugu.

Udalaren egoera ezagutzeko, udaleko, bere erakunde autonomoetako eta Beruala, SAko sail eta zerbitzuetako arduradunei elkarrizketak egin zaizkie. Elkarrizketez gain, zenbait elementu ere behatu dira. Aztertu diren sail edo zerbitzuak hauek dira: Idazkaritza, Berdintasuna, Antolakuntza eta Teknologi Berriak Saila, Langileria Saila, Laneko Prebentzio Zerbitzua, Ekonomia eta Ogasun Saila, Hirigintza eta Ingurumen Saila, Zerbitzu Saila, Kultura, Liburutegia, Musika Eskola, Lanbide Hastapena, GIZ, Udaltzaingoa, Merkataritza eta Sustapen Saila, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua, Kirol Patronatua eta Beruala, SA. Luginza Saila ezin izan da aztertu.

Txostenean zehar, udalaren erreferentzia egiten denean, udalari, bere erakunde autonomoi eta Beruala, SAri egiten zaie erreferentzia.

Udalaren egoera horretatik abiatuta, plangintzaldi amaierarako lortu nahi diren helburu estrategikoak eta aurrerantzean udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehaztu ditugu. Horrekin bat, erabilera planaren barruan sartzen diren udal langileak zein diren zehaztu dugu.

Diagnostikoaren egoeraren deskribapena egiten denean, galdetegiak egitean jaso diren datuak azaltzen dira; egoeraren analisi orokorra egiten da, beti ere emandako informazioaren arabera, eta hobetzeko aukera duten elementuak azpimarratuta.

Erabilera plana Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidali dugu, osoko bilkurara eraman aurretik behar duen aldeko txostena jaso dezan.

Erabilera plana osoko bilkurak onartuko du eta plan honen jarraipenaren ardura izango duen Jarraipen batzordearen kideak eta egitekoak zehaztuko dira.

4. DIAGNOSTIKOA

LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia

Sendotasuna

Elementu horren hizkuntza irizpideak

Indarrean dagoen erabilera planak arautzen du neurria. Honakoa da jasota dagoena: Honakoak dira erabilera planean jasota dauden irizpideak barruko eta kanpoko hizkuntza paisaiaren inguruan:

a. Barruko hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egongo dira. Horrez gain, udalak piktogramak erabiltzea bultzatuko du, irudi ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko.

b. Kanpoko hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egongo dira, eta udalak piktogramak erabiltzea bultzatuko du, irudi ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak udalaren iragarkietan, publizitatean eta kanpainetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko, ondoko jarraibideak beteko dira, betiere indarrean dagoen legedia errespetatuz.

Udalaren eta beraren menpeko erakundeen idazki orotan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz. Udalerrian zabaldu beharreko agirietan ere euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz. Iragarpen ofiziala egin beharreko agirietan euskara erabiliko da.

Argitalpenei dagokienez, irizpide orokorra argitalpenetan beti euskara erabiltzea da, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Adierazpenei dagokienez, ekitaldi publiko edo/eta prentsaurrekoetan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiatuko da udala. Hala, ekimen horietan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Webguneari eta sare sozialei dagokienez, webgunea euskaraz irekiko da eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia lehenengoz euskaraz bistaratuko zaio, errore oharrak barne. Webguneak beste hizkuntza batean nabigatzeko aukera ematen duenean, Internet bidez lor daitezkeen idazki orok eta on line izapidetzeek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz ere egon beharko dute. Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarietara eramango gaituztela bermatuko da. Udalak sare sozialetan euskara erabiliko du.

Elementu hauen sortze-hizkuntza eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko moduak

Arlo honetako dokumentu guztien sortze hizkuntza euskara da %100ean, eta Udalean bertan sortua dena euskara hutsez jartzen da (errotuluak, paper gauzak...).

Euskara planaren helburu nagusia da udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Sortze hizkuntza euskara izango da beti, horretarako gaitasuna duten langileentzat. Arreta berezia jarriko zaio udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeari, beti ere komunikagarritasuna errazteari begira. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriek argiak eta ulergarriak izan behar dute. Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dira.

Hau da, zehazki, hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusi den itzulpen beharria: herritarrei nahiz beste administrazio batzuei ele biz bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea. Aipatu itzulpen beharrianari nola erantzun zehazteko, berriz, udal langileak arduratuko dira itzulpena egiteaz agiri labur (orri 1) edo errepikakorra denean, eta udal itzulpen zerbitzura joko da itzulpen luzeagoetan.

Udalak eduki beharreko dokumentu erduei dagokienez, hau da erabilera planean jasotako erabakia: Udalak berak dituen lanerako espediente eredu eta dokumentu ereduak euskaraz behintzat egongo dira. Udalak behar duen espediente ereduren bat ez badauka, eta euskara ofiziala den lurraldeko beste erakunde bati eskatzen badio, euskarazkoa eskatuko du.

Hizkuntza kalitatea zaintzeko, hainbat baliabide eskaintzen dituzte UEMAk, IVAPek eta udalak:

1. Laneko hizkuntza lantzeko ikastaro presentzialak. Ikastaroaren helburua da euskarazko hizkera administratiboa argia, egokia eta zuzena izatea. Horretarako, udal agiri askotan ikusten ditugun akatsak eta gabeziak lantzen ditugu. 12 orduko ikastaroak dira, eta lan orduetan eskaintzen dira. Mota honetako hiru ikastaro antolatu dira udalean, bai 3. HE eta 4. HE egiaztatuta duten langileei zuzenduta bat eta Zerbitzu Saileko langileei zuzenduta hiru.
2. Aurreko puntuko helburu berberarekin, hilean behin UEMAk fitxa bat zabaltzen die mankomunitateko udal langile eta hautetsiei ohiko akatsak zein diren jakinarazteko eta zuzentzeko moduak irakasteko.
3. IVAPEk Berriazko Hizkuntza Prestakuntzaren barruan antolatzen dituen zenbait ikastaro egin dituzte udal langileek.
4. Zalantza puntualak. Udaleko teknikariengana edo itzultzailearengana jo dezakete hizkuntz zalantzak argitzeko, eta praktika hori modu sistematikoan bideratzen da udal osoan zehar.

1. ERAKUNDEAREN IRUDIA	HEDADURA	
	Euskaraz	Ele biz
ERROTULAZIOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	%80	%11
ARGITALPENAK, IRAGARKIAK, PUBLIZITATE-KANPAINAK, PRENTSA-OHARRAK ETA PAPER-GAUZAK	%93	%4
JENDAURREKO EKITALDIAK	%77	%7
WEBGUNE ETA SARE SOZIALEN EDUKIA	%93	%6

Egoeraren analisisa

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Kanpo-errotulu nagusia. Eraikineko errotuluak (irekita/itxita, irteera, sarrera, ongietorrizkoak, solairuak, gelak, guneak, bisitariak, etab.) eta zerbitzuetakoak (igogailua, telefonoa). Segurtasuna, ingurumena eta kudeaketaren ingurukoak (aitortza-agiriak, panelak, etab.). Publizitatea, eskaintzak, obrak eta antzekoak. Identifikaziozkoak (karguak, etab.). Bezeroari edo herritarrari zuzendutakoak (arreta-ordutegia, txanden itxarotea, debekuak, produktuen edo zerbitzuen tarifak, eskaintzak eta antzekoak). Autoen errotulazioa. Lan-arroparen errotulazioa. Igogailuaren azalpenak, ate automatikoetako ahozko oharrak, informazioa emateko telebistak, ikus-entzunezkoak, etab.

Errotulazio eta ikus-entzunezkoen presentzia euskaraz udalean %80 da.

Kanpo errotulu nagusiak euskaraz daude oro har. Beste administrazio batzuek jarritakoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa Institutuan, ele bietan dago.

Eraikineko errotuluak (irteera, ongietorrizkoak, solairuak...) euskaraz daude, baita karguen errotuluak ere.

Autoen errotulazioa eta erropen errotulazioa euskaraz daude.

Bezeroei eta herritarrei zuzendutako mezu gehienak euskaraz daude eta ele bietan egonez gero, oro har euskarari lehentasuna emanda daude.

Kultura etxeko igogailuaren elementu batzuk euskaraz daude eta beste batzuk gaztelaniaz.

Panelen kasuan, gehienak euskaraz daude, baina kartel batzuk ele bietan ere badaude: GIZek kudeatzen duen panelean, akademia pribatuetatik gaztelaniaz bidaltzen dute informazioa, ikastaroen, lan eskaintzen... berri emateko.

Iragarki tauletan aldizkari ofizialetako iragarki gehienak euskaraz daude; BAOkoak ere bai. Baina badago iragarkiren bat estatuko beste herrialderen batekoa gaztelaniaz.

Berhaz bulegoaren ondoan dagoen Ur Partzuergoaren bulegoan, hizkuntza paisaia guztia ele bietan dago. euskarari lehentasunik eman gabe.

EITB hari musikala, Itsuki Irratia, Euskadi irratia edo Euskadi Gaztea jartzen dira udaleko sail konketu batzuetan. Horietan, musika euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izaten da oro har.

Liburutegian elementu gehienak euskaraz daude, baina liburu, film eta abarren erakustokietan elementu gehienak gaztelaniaz daude; kartel bat ele bietan dago, bideokameraz zaindutako gunearena, euskarari lehentasunik eman barik. Liburu lapurretari ez gertatzeko oharraren pegatina gaztelaniaz dago eta argazki batzuk ere gaztelaniaz daude.

Udal osoko telefonoek ahots mezuak euskaraz ematen dituzte, baina softwarea gaztelaniaz dute.

Turismo Bulegoko paneletan jatetxeetako menuak eta gainontzeko informazioa jartzen dute ostalariek... Jatetxeen kasuan, menuen %85 jartzen dituzte gaztelaniaz eta %15 euskaraz. Gainontzeko informazioa ele bietan jartzen dute.

Oinarrizko Lanbide Heziketako Ikastetxeak Bermeoko ikastetxeei euskaraz bidaltzen dizkie komunikazioak, eta Bermeotik kanpokoei ele bietan, euskarari lehentasuna emanda.

Kirol Patronatuak bere paneletan informazio gehiena euskaraz jartzen du, baina ikastaroen araudia gaztelaniaz; aitortza agiriak ele bietan daude (zenbait erakundek aitortutakoak dira).

Kirol Patronatuaren kasuan, patronatua bera denean ekintza edo ekimenen antolatzaile bakarra euskaraz antolatzen dituzte ekintza edo ekimen horiek. Patronatua babeslea baino ez denean, ele bietan (triatloia eta mota horretako ekintzak izaten dira babesle gisa antolatzen direnak).

Kiroldegiko kantzako publizitatearen kasuan, udalaren publizitatea euskaraz dago; gainontzekoen kasuan denetarik dago; iragarkien %26 euskaraz daude, %10 ele bietan eta %41 gaztelaniaz.

Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper- gauzak

Irudi korporatiboaren osagaiak: marka, logotipoak, bisita-txartelak, zigiluak, karpetak, orri-buruak, fax-orriak, karpetak, gutun-azalak, enpresako zigilua, biltzeko paperak, poltsak, etab. Iragarkiak, argitalpenak: lan-eskaintzak, batzar-deiak, aldizkariak, liburuak, etab. Sustapen-materiala: katalogoak, tolesgarriak, gonbidapenak, txiskeroak, agendak, egutegiak, boligrafoak, sustapen-gutunak, sagu-azpikoak, CDak/DVDak, pendrive-ak, etab. Urteko txostena eta antzeko agerkariak. Prentsa-oharrak, publizitate-kanpainak, babesletzak, publi-erreportajeak, etab.

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper gauzak %93ko presentzia dute euskaraz udalean.

Irudi korporatiboaren osagai guztiak euskaraz daude: marka, bisita-txartelak, zigiluak, orri-buruak, karpetak, gutun-azalak...

Lan eskaintzak hein handi batean euskaraz argitaratzen dira. Behargintzaren kasuan, beste erakunde batzuek bidalitako lan eskaintzak izaten dituzte ikusgai, ez Behargintzakoak eta ele bietan daude.

Batzar deiak euskaraz egiten dira, eta sustapen materiala ere hein handi batean euskaraz dago.

Prentsa oharren kasuan, tokiko ekintza edo ekimena iragarri nahi denean, euskaraz bidaltzen dira prentsa oharrak komunikabideetara. Bermeotik kanporako sustapena egin nahi denean eta Bermeora jendea erakarri nahi denean, ele bietan. Ia sail guztiek ematen diote informazioa Prentsari euskaraz (%95 euskaraz eta %5 gaztelaniaz). Udaltzaingoaren kasuan, zerbait gaztelaniaz bideratzen da.

Berdintasunak pen drivea ele bietan dauka, Eusko Jaurlaritzak emandakoa delako.

Libururik eta aldizkaririk ez da argitaratzen udalean, baina normalean Euskal Herritik bada, ele bietan jasotzen dira eta Euskal Herritik kanpo gaztelaniaz.

Lan eskaintzen iragarkiak euskaraz egiten dira, baina BAOra ele bietan bidaltzen dira. Komunikabideetan, %95 argitaratzen dira euskaraz eta %5 gaztelaniaz.

Laneko agenda asko gaztelaniaz edo bizpahiru hizkuntzatan daude. Langile bakoitzak erabakitzen du zein motatako agenda erabili (paperezkoa ala elektronikoa) eta paperezkoen kasuan, agenden kostua beren gain hartzen dute udal langileek. Sail batzuetan Google Calendar erabiltzen dute eta aplikazioa gaztelaniaz dago. Agendak gaztelaniaz edo bizpahiru hizkuntzatan egon arren, bete euskaraz betetzen dira.

Jai liburua hiru zatitan banatuta dago: egitaraua, iragarkiak eta artikulua. 2018ko datuen arabera, egitaraua %100 argitaratu da euskaraz; artikulua %62 euskaraz; eta iragarkien atala %56 euskaraz, %32 ele bietan eta %12 gaztelaniaz.

GIZek herritarrei bidaia liburuak uzten dizkie. Ez dago argitaletxerik bidaia libururik euskaraz argitaratzen duenik.

Ele bietan dauden dokumentuak oro har euskarari lehentasuna emanda daude; eta ele bietan egin edo bidaltzen dena, oro har, euskarari lehentasuna emanda bidaltzen da.

Kultur agenda euskaraz argitaratzen da.

Liburutegiko katalogoak ele bietan daude (Absys), baina euskaraz konfiguratuta daude.

Berria eta Hitza hartzen dira zenbait sailetan.

Oinarrizko Lanbide Heziketako Institututik urteko txostena jaurlaritzara gaztelaniaz bidaltzen da.

AZ karpeta batzuk gaztelaniaz daude sailen batean (zaharrak).

Jendaurreko ekitaldiak

Bezeroekin, herritarrekin edota elkarteekin, beste erakundeetako langileekin, etab. egiten diren ekitaldiak, jardunaldiak, erakustazokak, erakusketak eta antzekoak.

Jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia udalean %77 da.

GIZek gazteei zuzenduta antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz antolatzen dira. Bakar bat antolatu izan da gaztelaniaz ez zelako bilatu euskaraz gaitasuna duen irakaslerik. Horrez gain, GIZek kontratatzen dituen monitore guztiak euskaldunak dira.

Kultura Sailak herritarrei eskaintzen dien produktuaren %69 euskaraz da. Ingelesez abesten duen musika kontzerturen bat ere antolatzen da.

Musika Eskolak eskaintzen dituen ikastaroak eta kontzertuak denak dira euskaraz.

Talde fokalak, parte hartze prozesuak, agerraldiak... euskaraz egiten dira.

Behargintzaren kasuan, orain gutxira arte, ikastaroetan idatziz dena ematen zuten gaztelaniaz eta ahoz erdia. Gaur egun, aldaketa nabarmena dago eta euskarazko ikastaroen eskaintza asko zabaltzen da: ikastaroen %80 eskaintzen dituzte euskaraz. Jardunaldien kasuan hizlarien hizkuntza gaitasunaren arabera, erdia euskaraz antolatzen da eta beste erdi gaztelaniaz.

Liburutegiaren kasuan, ekitaldi guztiak antolatzen dira euskaraz eta ia ikastaro edo tailer guztiak ere bai. Bestalde, erabiltzaileen esku dauden liburu, CD, aldizkari eta abarren artean, %33 dira euskaraz, %5 ele bietan eta gainerakoak gaztelaniaz.

Turismo Bulegoaren kasuan, Arrain Azoka bere osotasunean kontuan hartuta, hau da, hitzaldiak, bisita gidatuak..., 2018an esate baterako, modu honetan egin zen: aurkezpena ia bere osotasunean egin zen euskaraz. baina pare bat enpresetako ordezkariak ez zekiten euskaraz eta gaztelaniaz egin zuten euren jarduna. Bestalde, ostalariei zuzendutako ikastaroa gaztelaniaz egin zen, ostalarien erdiak baino gehiago errumaniarrak eta hegoamerikarrak direlako. Bisitari edo turistei zuzenduta egiten diren bisita gidatuen kasuan, %80 euskaraz egiten dira.

Oinarrizko Lanbide Heziketako Institutuaren eredua elebiduna da; ikastaroetan ahoz %60 egiten da euskaraz eta %40 gaztelaniaz. Ahalegintzen dira euskaraz egiten, etorkinekin ere, baina beti ezinezkoa izaten da. Ikastaroetan idatziz %20 egiten da euskaraz eta %80 gaztelaniaz. Euskara asignatura badute.

Kiroldegiko erabiltzaileei eskaintzen zaizkien ikastaroen erdiak euskaraz dira eta beste erdiak gaztelaniaz. Ikastaroetako hizkuntza jarraibide edo irizpideak ezarrita daude.

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuaren kasuan hitzaldiak euskaraz antolatzen dira kasu batzuetan. Euskaraz antolatzen direnean, hartzailerak bat egonez gero, ez dakiena euskaraz ppt-a gaztelaniaz jartzen da.

Berualak antolatzen dituen tailerrak eta erakusketak euskaraz izaten dira.

Oro har, udalak herritarrei antolatutako ikastaro eta jardueretan, euskararen presentzia %65 da.

Ingurune digitala

Webgune eta sare sozialen edukia

Webguneko edukiak (atal finkoak: orri nagusia eta hurrenez-hurrenko atalak). Aldizkako materiala (txostenak, idatziak, berriak...). Erakundearen sare sozialetan (Facebook-a, Twitter-a, LinkedIn-a, etab.) eta bestelako webguneetan euskarak daukan presentzia eta erabilera. “.eus” domeinua.

Ingurune digitalean euskararen presentzia udalean %93 da.

Web gunea euskaraz eta gaztelaniaz dago. Euskarazko bertsioan eduki gehienak euskaraz daude, baina Prentsa atalean esate baterako, badira gaztelaniazko berriak, erdal komunikabideetatik bere horretan hartzen direnak. Horiez gain, bada baldintza agiriren bat gaztelaniaz ere. Gaztelaniazko bertsioan zati estatikoak gaztelaniaz daude eta zati dinamikoak euskaraz. Eduki guztiak euskaraz daude.

Ez dago irizpide argirik udalean webguneko Kontragilearen Profiler baldintza agiriak bideratzeko orduan: kasu batzuetan euskaraz bideratzen dira eta beste batzuetan euskaraz eta gaztelaniaz, eta kasuren batean zutabe bitan ere jarri izan dira (ele bietan). Sailetatik bidaltzen diren moduan argitaratzen dira webgunean. Bestalde, webguneko euskarazko bertsioa izan arren, eta oro har, baldintza agiriak bertan euskaraz argitaratu, lizitatzaileraren batek gaztelaniazko alea eskatzen duenean gaztelaniazko alea igotzen da webgunearen euskarazko bertsiora.

Ingurumenaren kasuan, baldintza agiriak ele bietan egiten dira, eta bertan sailean egiten da itzulpena.

Udal araudiak euskaraz eta gaztelaniaz daude webgunearen euskarazko bertsioan. Webguneko Berriak ataleko berrien erdiak gaztelaniaz daude webgunearen euskarazko bertsioan, gaztelania erabiltzen duten komunikabideetatik hartutakoak direlako.

Turismo Bulegoaren kasuan, eta bulegoaren izaera kontuan izanda, webgunea lau hizkuntzatan elikatzen da.

Zaharren Egoitzako webgunea euskaraz eta gaztelaniaz dago.

GIZeko bloga euskaraz dago.

Sare sozialetan euskararen erabilera da nagusi (facebook, twitter, whatsapp...).

Bandoak euskaraz zabaltzen dira herrian zehar, eta iragarki taulan eta webgunean jartzen da gaztelaniazko alea euskarazkoarekin batera.

Herritarren esku dagoen abisuen app-a euskaraz dago.

1. Bezeroekiko (pertsone fisikoak) edo herritarrekiko harremanak

Sendotasuna
Elementu horren hizkuntza irizpideak
Erabilera planean dago jasota prozedura, eta langileak arduratzen dira horretaz. Honakoa da planean jasota dagoena: Harrerako mahaian eta antzekoetan udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak (inprimakiak...), eta, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal langileak herritarraren arabera euskarazkoa edo, erdaldun elebakarra baldin bada, ele bietakoa emango dio. Beste erakunderen baten inprimakien kasuan, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein Nafarroako Foru Komunitatekoak, udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorritz gero, udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari. Etxera bidaltzen diren agirien kasuan (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak...) euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta 10/1982 Oinarrizko Legeari kalterik egin gabe. Herritarrekiko ahozko kanpo harremanei dagokienez, hauek dira hizkuntz irizpideak: Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak) euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe. Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, herritarrek espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu. Ekitaldi publiko edo/eta prentsaurrekoetan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiatuko da udala. Hala, ekimen horietan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz. Tramiteak <i>on line</i> egiteko UEMak ez dauka berariazko hizkuntz irizpiderik, baina ulertzekoa da bestelako ataletan jasotakoari jarraitu beharko liokeela.
Elementu hauen sortze-hizkuntza eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko moduak
Euskara sortze hizkuntza da %100ean.

Udaleko erabilera plana da sortze hizkuntza eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko modua. Euskara planaren helburu nagusia da udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza, bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Horrez gain, itzulpenen gaineko erabakia eta udalak eduki beharreko dokumentu ereduak dagokion erabakia dago (erakundearen irudiaren atalean azalpena).

Hizkuntz kalitatea zaintzeko, hainbat baliabide eskaintzen dituzte UEMAk, IVA Pek eta udalak (erakundearen irudiaren atalean azalpena).

Bestetik, udal langileek euren lanerako behar izaten dituzten idatzi batzuk gaztelaniaz daudenez, edo ez daudenez eskuragarri euskarazko iturrietan, hainbat lan-ildo dituzte udalak eta UEMAk zehaztuta duela urte batzuetatik:

1. UEMAk euskarazko dokumentu eta espediente banku bat dauka, eta bertan jasota daude euskarazko espediente edo dokumentu ereduak. Mankomunitateko udal batek dokumentu edo espediente eredu bat gaztelaniaz bakarrik badu, UEMAk teknikariekin harremanetan jartzen da, eta beste udalekin harremanetan jartzen gara agiri hori euskaraz ote duten jakiteko. Ez badago, UEMAk teknikariek itzultzen dute agiria, eta udal guztien eskura jartzen dute.
2. Udal langile askori trebakuntza saioen eskaintza EUDELetik eta IVAPetik iristen zaie, eta asko gaztelaniaz dira. Horrek sortze hizkuntzan eragiten duenez (laneko informazio ugari gaztelaniaz ematen zaie), UEMAk EUDELekin eta IVA Pekin lanketa abian du, ikastaro horietan euskararen eskaintza handiagoa izan dadin. Udalak ere behin baino gehiagotan egin die eskaria EUDELi eta IVAPi ikastaro horietan euskarazko eskaintza handiagoa izan dadin.
3. Legeak eta halakoak funtsezkoak dira udal langileen lanean, eta askotan gaztelaniaz bakarrik daude, eta lege berrien ikastaroak eta gaztelaniaz ematen dira. UEMAk hitzarmena du EHUrekin, hainbat legeri buruzko ikastaroak euskaraz emateko. Horrek bereziki idazkariei edo antzeko lanpostuei eragiten die. Bermeoko Udaleko idazkariak ezin

izan zuen parte hartu Administrazio Prozedurako Lege berriari buruzko ikastaroan. Hiru/Lau hilabeteen behin idazkariekin harremanetan jartzen da UEMA, mota horretako zein ikastaro nahiko luketen galdetzeko.

4. Legeak-eta euskarara garaiz itzulita edukitzeko hainbat ahalegin egin dituzte udalak eta UEMAk Eusko Jaurlaritzarekin, IVAPekin, EUDELekin eta abarrekin, baina ez da gunee bateratu eta eraginkorrik sortu, legeak-eta euskaraz eskuratu ahal izateko.

Udalak tramiteak on line egiteko aukera eskaintzen du bere webgunean, eta herritarrek asko erabiltzen duten zerbitzua da hau. Bertsio bi ditu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Gaztelaniazko bertsioan atal batzuk euskaraz daude, itzulpenak egin arte.

2. BEZEROEKIKO EDO HERRITARREKIKO HARREMANAK	HEDADURA	
	Euskaraz	Ele biz
IDATZIZKO HARREMANAK	%80	%16
EUSKARAZKO ESKAERARI EUSKARAZ EMANDAKO ERANTZUNAK	%100	%0
HARRERA	%98	%1
TELEFONOZ, ONLINE ETA AURREZ AURREZ BURUTUTAKO AHOZKO HARREMANAK	%74	%8
EUSKARAZKO ESKAERARI EUSKARAZ EMANDAKO ERANTZUNAK	%100	%0

Egoeraren analisia

Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

Idatzizko harremanak

Inprimaki digitalak edo on linekoak (emate-agiriak, gordailuak, arreta-guneetako inprimaki eta txantiloak, etab.). Komunikazioak: gutunak, mezu elektronikoak, faxak. Inprimaki ofizialak: erreklamazio-orriak, etab. Sare sozialetako harremanak. Emangarriak: txostenak, aktak, eta kalitatearen kudeaketarako dokumentuak (asetasun-inkestak, matxurak), eta antzekoak. Erabiltzaileen komunitateak, aurrez aurrekoak edota birtualak (talde fokalak, world-café-ak, interneten bidezkoak, etab). On line zerbitzuak: erakundearen web orriaren bidez, bezeroen edo herritarren eskura jartzen diren tramitazioen eta zerbitzu telematikoen hizkuntza. Komunikazio elektronikoaren ezaugarri

bereziak aintzat hartzen dira. Aplikazio informatikoak (App-ak, SharePoint-a, Dropbox-a, etab.) eta teknologia berriak. Entitatearen izenean zerbitzuak ematen dituzten enpresek idatzizko harremanetan erabiltzen duten hizkuntza. Produktuaren Fitxa teknikoa. Hizkuntza-osagaiak: pantailak, ahots-mezuak. Bermea. Markaren izena. Etiketa. Bilgarria. Salmenta osteko zerbitzua. Dokumentuak (zerbitzua). Markarekin batera agertzen diren mezuak.

Herritarrekiko hizkuntza harremanen %80 euskaraz bideratzen dira.

Jakinarazpenen kasuan, euskaraz bideratzen izan dira azkenengo urteetan Euskal Herrira bideratzen izan diren jakinarazpenak; gaztelaniazko alea interesdunak eskaria eginda bermatzen izan da. Azken aldi honetan herritarren hizkuntza hautuaren arabera bidaltzen dira jakinarazpenak.

Mezu elektronikoak, oro har, eta salbuespenak salbuespen herritarrek erabilitako hizkuntzan erantzuten dira (Udaltzaingoa, Kirol Patronatua. ATB...). Agurrak euskaraz jartzen dira normalean, nahiz eta erantzuna gaztelaniaz eman edo Euskal Herritik kanpo bidali. Udaltzaingoarene kasuan eskari edo kontsulta asko Euskal Herritik kanpokoak izaten dira, beraz gaztelaniaz datozenek, eskari edo kontsulta kopuru handi bat gaztelaniaz erantzuten dira.

Kirol Patronatuan gutunak herritarren hizkuntza hautuaren arabera erantzuten dira.

Kulturatik mezu elektronikoak euskaraz bidaltzen dira eta eranskinak ere euskaraz. Eranskinetan Bermeon zer agenda, lan eskaintzak eta abar bidaltzen zaizkie herritarrei.

Bermeotarrak nagusiki euskaraz zuzentzen dira udalera.

Errolda ziurtagiriak ele bietan ateratzen dira, dirudienez aplikazio informatikoak ez daukalako aukerarik euskaraz ateratzeko.

Kontratatzeko enpresei hizkuntza irizpideak ezartzen zaizkie, baina ez denez jarraipen zehatzik egiten, kasu askotan ez dakigu zehatz-mehatz zein hizkuntzatan ematen duten herritarrekiko zerbitzua, eta dakigun kasuetan ere ez dakigu zein proportziotan.

Inprimakien kasuan, oro har, ale bat euskaraz daukagu eta beste bat ele bietan euskarari lehentasuna emanda. Baina salbuespenak badira: Kirol Patronatuan inprimakiak ele bietan daude euskarari lehentasuna emanda.

Jendaurrean dauden inprimakien kasuan, askotan ez da betetzen euskarazko alea jendaurrean izateko irizpidea.

Tramitazio eta zerbitzu telematikoen informazioa euskarazko bertsioan euskaraz dago eta gaztelaniazko bertsioan itzultzeko dagoen informazioa kenduta, beste guztia gaztelaniaz dago; inprimakien kasuan, bai euskarazko bertsioan, zein gaztelaniazkoan ale bat euskaraz dago eta beste bat ele bietan, euskarari lehentasuna emanda.

Liburutegian erabiltzaileen esku dauden teknologia berriak euskaraz konfiguratuta daude, eta erabiltzaileek hizkuntza hautua egiteko aukera dute.

Oinarrizko Lanbide Heziketako Institutuaren kasuan, Eusko Jaurlaritzak inprimakiak ele bietan bidaltzen dizkie. Bete euskaraz betetzen dituzte. Bertatik agiriak normalean ele bietan bidaltzen dira euskarari lehentasuna emanda.

Oinarrizko Lanbide Heziketako Institutuaren kasuan, whatsapp gurasoei azterketen eta abarren informazioa bidaltzeko erabiltzen da. Gurasoen %25i bidaltzen zaio informazioa euskaraz, gainerakoei ele bietan.

Herritarrek asetasun inkestak erantzuteko orduan, herritarren %94k betetzen dituzte inkestak euskaraz.

Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak

Bezeroak edo herritarrek euskaraz bidalitako inprimaki eta komunikazioei euskaraz erantzutea.

Herritarrek eskaria euskaraz egiten badute, udalak euskaraz erantzuten die. Eskaria gaztelaniaz egiten badute ele bietan, euskarari lehentasuna emanda.

Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

Harrera

Arreta eta jendaurreko guneetako (Call-centerrak barne) telefonozko harrera (erabiltzaileak hitza hartu arte edo hizkuntza hautua egin arte). Laneko mugikorraren bidezko harrera. Arreta eta jendaurreko guneetako harreragileek bisitariak artatzean erabilitako hizkuntza (erabiltzaileak hitza hartu arte edo hizkuntza hautua egin arte). Segurtasuna, protokoloa eta harrera-hizkuntza. Grabazioen bidez ematen diren ohar eta azalpenetan erabilitako hizkuntza: erantzungailua, Call-center automatizatuak, txanda hartzeko makinak, etab.

Udalean %88 egiten da harrera eta lehenengo berba euskaraz. Kasuren batean, oso puntualean, harrera gaztelaniaz egiten da.

Berhazeko erantzungailua eta Behargintzakoa ele bietan daude.

Herritarrek eskertu egiten dute harrera edo lehenengo berba euskaraz egitea.

2.2.2.Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak

Bezeroekin edo herritarrekin izandako elkarrizketak, bilera arruntak edo teknikoak etab. Entitatearen izenean zerbitzuak ematen dituzten enpresek ahozko harremanetan erabiltzen duten hizkuntza.

Telefonoz, on line eta aurrez aurreko ahozko harremanen %74 bideratzen dira euskaraz.

Harrera eta lehenengo berba salbuespenen bat kenduta, euskaraz egin ostean, herritarraren hizkuntza hautuaren arabera edo herritarren gaitasunaren arabera jarraitzen dira elkarrizketak.

Zerbitzu enpresa batzuen kasuan, badakigu betetzen dituztela ezarritako hizkuntza irizpideak, baina zenbait kasutan ez dago jakiterik zehatz-mehatz. Ziurrenik, kontratatutako enpresek lehenengo berba euskaraz egingo dute, eta gero, herritarraren hizkuntza hautuaren arabera jarraituko dute elkarrizketa, baina ez daukagu datu zehatzik ez delako egiten jarraipen sistematikorik jakiteko ezarritako hizkuntza irizpideak betetzen diren.

Hirigintza arloan, esate baterako, obretarako kontratatzen diren enpresekiko bulego mailako harremanetan betetzen dira hizkuntza irizpideak, ez ostera obran bertan egoten diren langileekin. Dena den, azken horiek ez dute harremanik herritarrekin.

Herritarrak deituta egiten diren batzarren kasuan, joera handia dago euskaraz hasteko batzar horiek, eta gaztelaniaz jarraitzeko. Dirudienez herritar batzuk erosoago sentitzen dira gaztelaniaz. Hala ere, pausu handiak eman dira zenbait kolektiborekin egiten diren batzarretan: Arrain Azokako batzarrak, esate baterako, beren osotasunean egiten dira euskaraz; egoitza elektronikoari buruz, ziurtagiri elektronikoari buruz... egin diren batzarrak ere euskaraz egin dira. Baina, beste kolektibo batzuekin ezinezkoa da oraindik orain, ostalarien kasuan bezala.

Elkarteekin eta herritarrekin egiten diren batzar gehienak, beraz, euskaraz bideratzen dira, eta hizkuntza gaitasun oso ona antzeman da euren aldetik maila teknikoan ere euskaraz hitz egiteko.

Batzarrez gain, zenbait sailetan euskararen presentzia bermatzeko pausu garrantzitsuak ematen ari dira; Musika Eskolan, esate baterako, herritarrekin aurkezpenak euskaraz egiten dira eta ez dakienari informazioa helarazteko baliabideak ezartzen zaizkio; ez dakienari berari ematen zaizkio azalpenak gaztelaniaz.

Bestelako kasuren bat ere badago, non kasu guztietan ez diren ahozko erabilerarako irizpideak betetzen: Musika Eskolan gurasoek euskaldunak izan arren, tutoretza guztiak ez dira euskaraz egiten, baizik eta irakaslearen hautuaren arabera. Musika Eskolako bezeroekiko harremanetan, bezero guztiek dakite euskaraz, baina eurekin %20 gaztelaniaz egiten da.

Ekonomia arloan, herritarrekin euskaraz egiten da normaltasunez, beti ere hizkuntza erregistroa hartzaile mota desberdinen mailara egokituta. Ohikoa da herritarrekin norabide bietan euskaraz egitea, baina, badira kolektibo batzuk gaztelaniaz egiteko joera handia dutenak, esate baterako finka administratzaileak.

Herritarrek eskertu egiten dute udal langileek edo arduradun politikoek eurekin euskaraz hitz egitea.

2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak

Bezeroak edo herritarrak euskarazko hautua egin ondoren, euskaraz erantzutea.

Udalari euskaraz hitz egiten dioten herritarrekin udalak euskaraz hitz egiten du sistematikoki eta salbuespenik gabe kasu guztietan (%100).

BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

2. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak

Sendotasuna
Elementu horren hizkuntza irizpideak
Erabilera planean dago jasota prozedura, eta langileak arduratzen dira horretaz. Lanari lotutako hizkuntza paisaiari dagokionez, errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egongo direla zehaztu du planak. Horrez gain, udalak piktogramak erabiltzea bultzatuko du, irudi ulergarriak direla irizten dion kasuetan, komunikagarritasuna errazteko. Gutun-azalak, orriak, fax-azalak, zigiluak eta abarrak euskaraz egongo dira, legeak ezinbestean arautzen duenari kalterik egin gabe. Ahozko barne harremanei dagokienez, telefonoz eta aurrez aurrekoan lehenengo hitza euskaraz izango da. Udal bileretako hizkuntza nagusia euskara izango da. Lan ordutegiko ahoko harremanei dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatilaren beste aldean zein kalean) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza, udalaren irudia ere bada. Udal langileak euskaraz hizketan aritzeak euskara prestijiatu egiten du. Hori dela-eta, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du udalak. Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan kontuan hartuko da udaleko lan hizkuntza euskara izatea dela udalaren helburua.

Idatzizko barne harremanei dagokienez, zehazten diren jarraibideak dira memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuetarako batez ere, eta, erabili beharreko hizkuntza ofiziala dela-eta, legezko xedapenek ezartzen ez dituzten bestelako idatzizko jarduketetarako. Udaleko administrazio-atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek. Eta udalaren helburua izango da Funtzio Publikoaren Legeari kalterik egin gabe udaleko langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izatea. Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskarazko gaitasun nahikorik ez badu, herritarrekin egiten den bezala, agiri hori itzuli egingo zaio; betiere, jatorrizkoa euskarazkoa dela argi utziz eta gaztelaniazkoa itzulpena.

Baliabide teknikoen baitan, tresna edo aplikazio informatikoei dagokienez, idatzizko harremanetarako jarraibidea gauzatze aldera, lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei, kasuan kasuko euskarazko bertsioa egonez gero. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (igogailua...) euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.

Elementu hauen sortze-hizkuntza eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko moduak

Euskara sortze hizkuntza da udalean %100ean. Erabilera plana da sortze-hizkuntza eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko modua.

Horrez gain, itzulpenen gaineko erabakia eta udalak eduki beharreko dokumentu ereduei dagokion erabakiak daude (erakundearen irudiaren atalean azalpena).

3. BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK	HEDADURA	
	Euskaraz	Ele biz
LANARI LOTUTAKO HIZKUNTZA-PAISAIA	%74	%5
INFORMAZIORAKO EDOTA KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK	%70	%1
LAN-BILERETAKO IDATZIAK	%90	%4

ERAKUNDEAREN BARNE HARREMANETARAKO IDATZIAK	%96	%1
ERAKUNDEAREN BARRUKO LAN-BILERETAKO AHOZKOAK	%94	%3
ERAKUNDEAREN BARRUKO TELEFONOZKO HARREMANAK	%93	%3
ERAKUNDEAREN BARRUKO AURREZ AURREKO HARREMANAK	%84	%7
EUSKARAZKO BERTSIOEN INSTALAZIO-KOPURUA	%74	%1
EUSKARAZKO BERTSIOEN ERABILERA	%57	%10

Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Errotulazio txikia (armairuak, apalak, karpetak, artxiboak, etab.), horma-irudiak, eta antzekoak. Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa. Ekoizpen-makinen errotulazioa, botoiak eta plakak. Errotulazio aldakorra. Kafe- eta janari-makinak, fotokopiagailuak, etab. Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak.

Lanari lotutako hizkuntza paisaiaren presentzia udalean %74 da.

Ageriko elementuak (egutegiak, armairuak, karpetak, horma-irudiak, pegatinak...) nagusiki euskaraz daude. Beste elementu batzuk, esate baterako, generadorearen erabilera orriak gaztelaniaz daude.

Fitxatzeko makina ia guztiak daude euskaraz, baina Kirol Patronatuan dagoen fitxatzeko makina zahar batek softwarea gaztelaniaz dauka.

Espedienteen karpetak eta udal langileek eurek jarritako bestelako oharrak, etiketak... euskaraz daude; sareko karpetak eta dokumentuak ere euskaraz daude.

Fotokopiagailu batzuk euskarazko softwarea dute, eta beste batzuk gaztelaniaz. Gaztelaniazko softwarea izan arren, udalean sartutako softwarea euskaraz dago. Pegatinaren bat badute gaztelaniaz.

Emergentziazko planoa eta debekuak euskaraz daude, baina su-itzalgailuak, alarmak eta sakagailu batzuk gaztelaniaz daude. Su-itzalgailuen pegatina ele bietan dago.

Kafe eta edari makinak hein handi batean euskaraz errotulatuta badaude ere, gaztelaniazko elementuak ere badituzte, eta softwarea gaztelaniaz duen makinarik ere bada.

Telefonoek ematen dituzten ahots mezuak euskaraz daude, baina telefonoen softwarea gaztelaniaz dago.

Badira artxibo kaxa zahar batzuk gaztelaniaz; berriak euskaraz errotulatuta daude.

Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

Informaziorako edota komunikaziorako tresna

Agiri-guneak: ohar- eta iragarki-taulak. Iradokizunen postontzia, Intraneta, berripapera. Posta elektronikoz egindako jakinarazpenak (langile berriak, bajak, etab.). Zirkularrak.

Informaziorako eta komunikaziorako tresnen %70 euskaraz daude.

Intraneta bere osotasunean euskaraz dago eta posta elektronikoz bideratzen diren komunikazioak ere euskaraz bidaltzen dira.

Idazkaritzaren kasuan, instrukzioak euskaraz bideratzen dira, baina instrukzioaren barruan, ereduren bat ele bietan egiten da, herritarrei erantzuna ele bietan eman behar zaien kasuetarako, udal langileei erantzuna errazteko helburuarekin.

Paneletan euskararen presentzia handia da, baina esate baterako GIZek kudeatzen duen panelaren kasuan, akademia pribatuetatik informazioa gaztelaniaz bidaltzen dute, ikastaroen eta abarren berri emateko.

Kirol Patronatuaren kasuan, fitxatzeko makinetatik batek ez dauka softwarerik, baina, fitxak ateratzen ditu gaztelaniaz.

Lan-bileretako idatziak

Erakundeak sortutako deialdiak, gai-ordenak eta aktak, partaideek daramatzaten txostenak, gaiari buruzko dokumentuak, etab.

Lan bileretako idatzien kasuan, euskarak udalean %90eko presentzia dauka.

Deialdiak, gai-ordenak, aktak, txostenak... hein handi batean euskaraz daude. %90 da euskararen presentzia elementu horietan.

Akta mota guztiak daude euskaraz: Osoko Bilkurakoa, Tokiko Gobernu Batzarrekoa eta batzorde informatzaileetakoak ere bai. Aktak euskaraz banatu eta zabaltzen dira.

Power point aurkezpenetan izan daiteke testu edo lege aipamenak gaztelaniaz sartzea, ez daudelako euskaraz.

Erakundearen barne harremanetarako idatziak

Idazki laburrak: e-mailak, oharak, jakinarazpenak, egiaztagirak, inprimakiak. Idazki luzeak: memoriak, txostenak, proiektuak, etab. Lan-aginduak, eguneroko lan-parteak, planoak, makinen erabilera-orriak, kontrol-fitxak, desadostasunak, ekintza zuzentzaileak, muntaketa- eta biltegi-fitxak, mantentze-txostenak, zerrendak, ebaluazioa, kontrol antzeko agiriak. Dokumentuen sarrera eta irteeren

erregistroak. Erakundeko dokumentazio ofiziala (eratz-ezkriturak, ahalmenak, etab.). Estrategia, prozesuak, prozedurak, txantiloak, erregistroak, auditoriak (barnekoak eta kanpokoak) eta kudeaketa ekonomikoa. Kalitate, ingurumen, prebentzio eta abarren inguruko dokumentazioa. Komunikazio-planak eta irudi korporatiboaren eskuliburuak.

Erakundearen barne harremanetarako idatziak (e-postak, oharak, inprimakiak, txostenak, proiektuak, lan aginduak, lan parteak, prozesuak, kudeaketa ekonomikoarekin lotutako agiriak...) oro har euskaraz daude. Elementu horietan %96 da euskararen presentzia. Salbuespen batzuk badira: Udaltzaingoak lan parteak eta txosten teknikoak gaztelaniaz egiten ditu.

Nestor Basterretxea aretoko makinaren erabilera orriak ez daude euskaraz; euskara ez den beste hizkuntza batzuetan daude.

Berualak bere barruko kontrola euskaraz egiten du. Baina, enpresa bat dauka kontratatuta kontabilitatea erateko, eta gaztelania da euren lan eta zerbitzu hizkuntza.

Beruala, ren kasuan, ikuskaritzak ahoz euskaraz bideratzen dira, eta azken txostena gaztelaniaz jasotzen da, Merkataritza Erregistrora bidaltzeko.

Ahozko Komunikazio bertikala eta horizontala

Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak

Erakundearen lan-bileretako ahozko harremanetako hizkuntza. Skype-a edo bideo-konferentzia bidezko bilerak.

Erakundearen barruko lan bileren %94 euskaraz egiten dira.

Udalan langile berrientzako protokoloa dago ezarrita. Bai Langileria Sailak, zein Laneko Segurtasun Sailak euskaraz ematen die informazio guztia langile berriei. Protokoloa bera ere euskaraz dago, eta Euskara Sailak bilerak egiten ditu langile berriei, udalaren hizkuntza ibilbidea, hizkuntza irizpideak eta Euskara Sailak euren esku jartzen dituen baliabideen berri emateko.

Kirol Patronatuak ere langile berrientzako protokoloa du eta langile berriei, bai kontratazio zuzena izan, zein elkarte bidezkoa izan, azaltzen zaie besteak beste, euskararen erabilera zein den patronatuan.

Laneko Segurtasun Sailak udaleko langileei ematen dizkien ikastaroak hein handi batean euskaraz izaten dira. Ikastaro horietan idatziz ez zaie ezer ematen udal langileei. Ikastaro horien kasuan, 1. HE egiaztatuta duten langileak izaten dira normalean, eta ikastaroen edukia teknikoak denean, euren hizkuntza gaitasunak mugak ditu. Kasu horietan aparteko

ahalegina egin behar izaten du dinamizatzailerak, euren hizkuntza mailarekin bat datorren erregistroan bideratzeko formakuntza saioak, azalpen batzarrak...

Erakundearen barruko telefonozko harremanak

Erakunde barruko lankideekin telefono bidezko harremanetako hizkuntza.

Erakundearen barruko telefonozko harremanetan euskararen presentzia %93 da.

Elkarrizketetan, euskara eta gaztelania erabiltzeko joera zabaltzen doa.

Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak

Erakunde barruko lankideekin aurrez aurreko harremanetako hizkuntza

Erakundearen aurrez aurreko harremanetan euskararen erabilera %84 da.

Sail batzuetan sailen arteko harreman ez formaletan euskararen erabilera handiagoa da, sail bereko langileen artean baino.

Lau sailetan Eusle metodologiaren araberrako esku-hartzeak bideratu dira, eta sail batean bideratzen ari dira. Ahozko erabileran eragiteko maila makroan ere antolatu izan dira sentsibilizazio eta formazio saioak, eta Euskaraldiari atxikimendua erakutsi zaio udaleko sail guztietatik.

Baliabide informatikoak

Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua

Euskaraz erabilgarri izan eta instalatuta dauden aplikazioak eta programak, orokorrak (Outlook, Windows, Office, etab.) eta berariazkoak. PCak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, eskuko telefonoak, etab.

Windows, Office eta abarren euskarazko bertsioak ordenagailuen %74tan daude ezarrita.

Udaltzaingoaren ordenagailuen kasuan, sistema eragilea eta office paketeak ezin dira euskaraz jarri, bateraezinak direlako AS400ekin.

Zenbait eskuko telefono gaztelaniaz konfiguratuta daude.

Euskarazko bertsioen erabilera

Euskarazko aplikazioak eta programak (orokorrak eta berariazkoak), erabilgarri izan eta lanpostuetan erabiltzen direnak.

Euskaraz daude aplikazioen %57. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa dutenak ehuneko horren barruan daude.

Aplikazio informatiko batzuek, batez ere Euskal Herriko erakundeek jarri dituztenak gure esku, bertsio bat euskaraz dute eta beste bat gaztelaniaz, eta kasu guztietan erabiltzen dira euskarazko bertsioak.

Aplikazioak euskaraz egon, zein gaztelaniaz egon, udalean sortzen eta sartzen den edukia oro har euskaraz dago. Udaltzaingoan, aplikazio informatikoetan nagusiki euskaraz sartzen dute edukia, baina ele bietan ere sartzen da Euskal Herritik kanpora bidaltzeko denean.

Udalak sortzen dituen aplikazio informatikoak, Excel orriak... euskaraz sortzen dira, eta edukia ere euskaraz sartzen da.

Kontratatzan ditugun aplikazio informatikoen kasuan, ez da erraza erabatean produktua euskaraz egotea eta euskarazko eguneratzeak garaiz iristea.

Gizarte Segurantzaren aplikazioa ez dago eroso euskaraz erabiltzeko, baina aurrerapauso handiak eman dituzte euskaraz jartzeko. Aplikazioa bera euskaraz dago, baina barneko orrietan dituen edukiak gaztelaniaz daude eta inprimakiak ere gaztelaniaz sortzen ditu. Oro har, atal asko euskaraz daude.

Turismo Bulegoan TVa dute (kobratzeko eta abar merkataritza establezimenduetan erabiltzen den ukipen pantaila). Euskaraz dago eta eguneratu barik dago orain urteak, eguneratzeak ordaindu egin behar direlako. Gaztelaniazko bertsiorako eguneratzeak, ostera, doan dira. Dena den, ez dute arazorik eguneratu barik erabiltzeko.

AS400en kasuan, udaleko sailek eurek sortzen duten informazioa euskaraz sartzen dute. Agiriak euskaraz, ele bietan eta gaztelaniaz ateratzen dira, esate baterako Kirol Patronatuan.

Antolakuntza eta Teknologi Berriak Sailean ingelesez dituzte software batzuk, internetetik hartzen direlako doan.

3. Pertsonen kudeaketa

Sendotasuna
Elementu horren hizkuntza irizpideak
Erabilera planean jasota daude arlo honi dagozkion irizpideak: GIZA BALIABIDEAK

1. Hizkuntza gaitasuna, udal langileak

- Hizkuntza prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizun zehatzak. Legeek arautzen dutenari jarraituz, beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntza prestakuntza egokia lor dezaten.

Horretarako, irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lanorduetan hizkuntza prestakuntzako baimenak ematerakoan:

- Derrigor bete beharreko hizkuntza eskakizunek dakartzaten prestakuntza beharrezaneiei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariei lehentasuna emango zaie.
- Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntza erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.
- Edozein kasutan, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langile guztiak izango dira kontuan hizkuntza prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionarioak izan. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko langile baten hizkuntza prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei plangintzaldi hau arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 44. artikuluan ezartzen den lanpostutik kentzeko espedienteak hastera aztertuko du udalak. Langileen kontratazioa edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatatu behar izanez gero, udalak lanpostu zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien HEren pareko euskara gaitasuna eskatuko die. Betekizun hori EAEko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, II. tituluko I. kapituluaren 15.1 artikuluko d) puntuan, zehaztutakoari jarraituz egingo da.

1. Atala: lanpostu zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

(...) d) Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigor hizkuntza eskakizuna eta hala badagokio derrigortasun data (...) Beraz, udalean, edozein lanpostu lege hornitzeko, dagokion hizkuntza eskakizunari igarotako derrigortasun data ezarriko zaio

langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua izan dezan. Lanpostu zerrendakoa ez den beste lanposturen bat sortu edo hornitu behar den kasuetan, lanpostu horrek dituen funtzioen araberrako HE ezarriko zaio, eta langile gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du. Betiere, 86/1997 Dekretuko 5. xedapen gehigarriak dioenari jarriki. Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den ondorengo euskara-mailetatik kasuan kasuko kontrataziokoa eskatuko dena:

- Ahoz eta idatziz euskara ulertzea (1 HE)
- Euskara ulertzea, mintzatzea eta irakurtzea (2 HE)
- Euskara ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea (3 HE)
- Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmenean (4. HE).

Beharrezkoa denean, beraz, udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei eta kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sina daitezen sustatuko du. Udal ordezkariak udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hautes-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak euskaldunak izateko.

Langileen etengabeko prestakuntzari dagokionez, udalak berak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak euskaraz izan daitezen saiatuko da. Udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarritz.

Laneko prestakuntzaren baitan hizkuntz kalitatea zaintzeko, hainbat baliabide eskaintzen dituzte UEMAK, IVAPek eta udalak:

1. Laneko hizkuntza lantzeko ikastaro presentzialak. Ikastaroaren helburua da euskarazko hizkera administratibo argia, egokia eta zuzena izatea. Horretarako, udal agiri askotan ikusten ditugun akatsak eta gabeziak lantzen ditugu. 12 orduko ikastaroak dira, eta lan orduetan eskaintzen dira. Plangintzaldian zehar lau ikastaro bideratu dira UEMATik.

Ikastaro horietan, 47 langilek parte hartu dute.

2. Aurreko puntuko helburu berberarekin, hilean behin UEMAk fitxa bat zabaltzen die mankomunitateko udal langile eta arduradun politikoei ohiko akatsak zein diren jakinarazteko eta zuzentzeko moduak irakasteko.

Horrez gain, udal langileek euren lanerako behar dituzten idatzi ugari gaztelaniaz daudenez, hainbat lan ildo ditu UEMAk zehaztuta duela urte batzuetatik:

1. UEMAk euskarazko dokumentu eta espediente banku bat dauka, eta bertan jasota daude euskarazko espediente edo dokumentu ereduak. Mankomunitateko udal batek dokumentu edo espediente eredu bat gaztelaniaz bakarrik badu, UEMako teknikariekin harremanetan jartzen da, eta beste udalekin harremanetan jartzen gara agiri hori euskaraz ote duten jakiteko. Ez badago, UEMako teknikariek itzultzen dute agiria, eta udal guztien eskura jartzen dute.
2. Udal langile askori trebakuntza saioen eskaintza EUDELetik eta IVAPetik iristen zaie, eta asko gaztelaniaz dira. Horrek sortze hizkuntzan eragiten duenez (laneko informazio ugari gaztelaniaz ematen zaienez), UEMAk EUDELekin eta IVAPekin lanketa abian du, ikastaro horietan euskararen eskaintza handiagoa izan dadin. Udalak ere behin baino gehiagotan egin die eskaria EUDELi eta IVAPi ikastaro horietan euskarazko eskaintza handiago izan dadin.
3. Legeak eta halakoak funtsezkoak dira udal langileen lanean, eta askotan gaztelaniaz bakarrik daude, eta lege berrien ikastaroak eta abar gaztelaniaz ematen dira. UEMAk hitzarmena du EHUrekin, hainbat legeri buruzko ikastaroak euskaraz emateko. Horrek bereziki idazkariei edo antzeko lanpostuei eragiten die. Bermeoko Udaleko idazkariak ezin izan zuen parte hartu Administrazio Prozedurako Lege berriari buruzko ikastaroan. Hiru/Lau hilabetea behin idazkariekin harremanetan jartzen da UEMA, mota horretako zein ikastaro nahiko luketen galdetzeko.
4. Legeak eta abar euskarara garaiz itzulita edukitzeko hainbat ahalegin egin dituzte udalak eta UEMAk Eusko Jaurlaritzarekin, IVAPekin, EUDELekin eta abarrekin, baina ez da gune bateratu eta eraginkorrik sortu, legeak eta abar euskaraz eskuratu ahal izateko.

Euskara sortze hizkuntza da %100ean. Horren oinarrian erabilera plana dago.

Horrez gain, itzulpenen gaineko erabakia eta udalak eduki beharreko dokumentu ereduak dagokion erabakiak daude (erakundearen irudiaren atalean azalpena).

Udal lanpostuek ezarrita dute hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data. Langileek lanpostuei ezarritako hizkuntz eskakizunak betetzen dituzte, eta kontratazio berrietako langileek ezinbestean bete behar dituzte lanpostuei ezarritako hizkuntz eskakizunak, lege zehaztutako prozedurari jarraiki. Udalean langile berri bat lanean hasten denerako, udalak prestatuta dauka langile berrientzako harrera eskuliburua. Eskuliburu horretan labur eta zehatz azaltzen zaio langile berriari UEMAko udal batean egoteagatik zein diren bete beharreko hizkuntz irizpideak eta udalak berak zer eta nola jokatzeko duen hizkuntza ofizialen erabilera.

4.PERTSONEN KUDEAKETA	HEDADURA	
	Euskaraz	Ele biz
PERTSONEN KUDEAKETA	%98	%1
LANEKO PRESTAKUNTZA	%35	%13
IKASTAROEEN KUDEAKETA	%50	%41

Pertsonen kudeaketa

Pertsonen kudeaketa

Langile etorri berrientzako protokoloa: harrera-liburuxka eta ahozko azalpenak. Barne-txostenak: lanpostuen monografiak, lanpostuen balorazioa, lanpostuen hornidurarako eskuliburua, hezkuntza-planak, erretiroak, aseguruak eta antzekoak. Lege-dokumentuak: kontratuak, lan- edo lan-baldintzen gaineko hitzarmenak, langilearentzako Gizarte Segurantzaren edo Ogasunari dagozkion dokumentuak. GG.BB sistemak: lan-jarduera balioztatze sistema-eredua, aurrez aurreko ebaluazioak, errendimendu-txostenak, gaitasunaren kudeaketa-eredua, gaitasunen mapa, etab. Idatzi estandarizatuak, nomina, ordutegi-kontrola, egiaztagiria, telefono-zerrendak, eta antzekoak. Langileak banaka bete beharreko inprimakiak: lizentzia-baimenak, bidaia- eta otordu-ordainketak, iradokizunak, eta antzekoak.

Zabalkunde handiko komunikazioak: lanpostu-eskaintzak, e-jakinazpenak, lan-ordutegi eta egutegiak, aseguru eta kotizaziozkoak, bilera-deiak, jangelako testuak eta antzekoak.

Pertsonen kudeaketarekin lotutako agirien %98 euskaraz dago: bidaia eta otordu ordainketen gastuen orria, harrera liburuxka, lanpostuen funtzioak, lanpostuen balorazioaren inguruko agiriak, eskaera orriak, telefono zerrendak...

Sail guztiek oro har, euskaraz betetzen dituzte mota horretako agiriak.

Berualako langileen kontratuak gaztelaniaz daude. INEMeko ereduak dira, aspaldikoak.

UEMAren jardunaren baitan, lan ildo bat dago kontratuak euskaraz egon daitezen. Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE) da udal langileen kontratu ereduak eskainteko eskumena duen erakundea (estatuaren mendekoa), eta jarraipena egiten zaio lan kontratuak euskaraz jar ditzan (kontratu ereduak euskaraz dauden konprobatu, eskaerak bidali kontratu ereduak euskaratzeko...). Gaur egun, kontratu eredu guztiek euskaraz daude.

Gizarte Segurantzarekin lotutako agiriei dagokienez, tramite gehienak on line egiten dira Red sistemaren bitartez. UEMako udalek eskaerak bideratu zituzten Red Sistema euskaraz jar zezaten, hasieran den-dena gaztelaniaz zegoelako.

Laneko prestakuntza

Laneko prestakuntza

Langileek jasotzen dituzten prestakuntza-saioetan ahoz eta idatziz erabilitako hizkuntza.

Ikastaro gehienak gaztelaniaz egiten dituzte udal langileek. Euskaraz ikastaroen %35 egiten dira.

Udalak enpresak kontratatu izan dituen udal langileei ikastaroak eskaintzeko, hein handi batean gaztelaniaz antolatu izan dira ikastaro horiek: Urcolan hizkuntza biak izan dute agerpena eta VECen ere saioen bat egin da euskaraz, baina nagusiki gaztelaniaz antolatu izan dira.

Langileria Sailak barruko langileentzat antolatzen dituen ikastaroen kasuan, bai ahoz, zein idatziz ikastaroak portzentaje berean antolatzen dira euskaraz eta gaztelaniaz. Euskaraz emateko gaitasuna duen enpresarik edo irakaslerik bilatzen bada euskaraz antolatzen dira.

Laneko Segurtasun Sailak udal mailan formazioa emateko antolatzen dituen ikastaroak euskaraz bideratu izan dira.

IVAPek eta Eudelek., zein beste hainbat erakundek udal langileen esku jartzen dituzten hainbat eta hainbat ikastaro gaztelaniaz eskaintzen dituzte, eta euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dituzten artean, badago joera nahiko nabarmena gaztelaniazko ikastaroetan izena emateko udal langileen aldetik.

Ingelese ere hartzen da ikastaroren bat Musika Eskolako langileen kasuan.

Oinarrizko Lanbide Heziketako langileen formazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatzen dituen ikastaroak gaztelaniaz izaten dira.

Ikastaroen kudeaketa

Ikastaro-deialdiak eta izen-ematea, asetasun-inkestak, horretarako aplikazioak, etab.

Ikastaroen kudeaketarekin lotutako agiriaren kasuan, %50 da euskararen presentzia.

Langileria Sailatik bideratzen diren deialdien matrikulen kasuan, hau da, IVAPek eta Eudelek eskaintzen duten formazioaren kasuan, euskaraz izaten dira ikastaroen kudeaketarekin lotutako agiriak, Langileria Sailak berak bideratzen dituelako izapide horiek.

Beste administrazio batzuk antolatzen dituzten ikastaroen kasuan, eta matrikula zuzenean langileak berak bideratzen duenean ikastaroa antolatu duen erakundera, ikastaroen kudeaketarekin lotutako agiriak ele bietan izaten dira (Osalan, Fremap...).

Erakunde bakarren baten kasuan, gaztelaniaz izaten dira, esate baterako Arkauteko Polizia Ikastegiak antolatzen dituen ikastaroen kasuan.

Udaletik langileei bidaltzen zaizkien balorazio orriak... euskaraz izaten dira. Balorazio orria udala ez den beste erakunde batekoa denean, normalean, ele bietan izaten da.

IVAPek eta EUDELEk antolatzen dituzten ikastaroetan, Langileria Sailatik bideratzen dira izapideak aplikazio informatiko bidez IVAPera, eta euskaraz izaten dira. Langileek zuzenean bideratzen dituzten matrikulen kasuan, hau da, Langileria Sailatik pasatu barik, normalean ele bietan.

Langileek kasu batzuetan ez dira ohartzen ikastaroetarako kudeaketarekin zerikusia duten orriak zein hizkuntzatan dauden.

4. Kanpo harremanak

Sendotasuna
Elementu horren hizkuntza irizpideak
Erabilera planean jasota daude arlo honen inguruko irizpideak:
Erakunde publikoekiko idatzizko kanpo harremanei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den

lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatuko dira, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko dira. Haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara erabiliko da beti, eta beraiegandik gutxienez euskaraz jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da, egun indarrean dagoen araudiari jarraiki. Horrenbestez, horietako batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero—, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, jakinarazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da. EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiliko da beti, 10/1982 legeari kalterik egin gabe. Administrazio hauengandik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, eta jakinarazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da.

Erakunde publikoekiko ahozko kanpo harremanei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden erakunde publiko batekin hitz egin behar denean, telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatuko da. Hala, gure udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzeko, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du udalak.

Eragileekiko idatzizko kanpo harremanei dagokienez, eragileentzako agirien kasuan (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...) euskara erabiliko da beti. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta 10/1982 Oinarrizko Legeari kalterik egin gabe.

Eragileekiko ahozko kanpo harremanei dagokienez, hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan

behar dela, herritarrek espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu. Eragileen aurreko agerraldietan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiatuko da udala.

Hala, ekimen horietan euskara erabiliko da beti, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Zerbitzu enpresak

Kontratua sinatu aurretik, euskarazko baldintza-agiriak prestatu eta zabalduko dira. Kontratazio guztietan udalak pleguen bidez, horiek behar diren kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, argi utziko du kontratatuko den enpresak udalean euskaraz ere aritu beharko duela. Zerbitzu enpresei bidalitako agiriak euskaraz bidaliko dira. Zerbitzu enpresa berriei kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da. Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

Hornitzaileak

Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (gonbidapena, aurrekontua...), euskararen baldintza zehaztuko da.

Kontratazio administratiboak

1. Udalaren eta beraren erakunde autonomiadunen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan ezarritako neurriak dagozkion ala ez .

2. Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan ezarritakoari jarraiki, honako neurriak hartuko dira:

- Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.

- Herriarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.

- Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu-prestazioa denean edo/eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak...) aipatu hizkuntza baldintza horiek betetzen ez badira edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntza gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez badira, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.

Elementu hauen sortze-hizkuntza eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko moduak

Elementu honen sortze-hizkuntza ia %100 da. Horren oinarrian erabilera planaren hartutako erabakia dago.

Horrez gain, itzulpenen gaineko eta udalak eduki beharreko dokumentu ereduei buruzko erabakiak daude (erakundearen irudiaren atalean azalpena).

Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei bideratzen dien agiri oro euskaraz ateratzen dira, salbuespenen bat kenduta. UEMAKo udalek hitzartuta daukate jaurlaritzarekin eta aldundiarekin bi erakundeekiko idatzizko harreman oro euskara hutsez izango dela. Udalak salbuespenen bat kenduta, ia %100ean betetzen du hitzartutakoa, baina jaurlaritzak eta aldundiak ez. Sei hilean behin UEMAK udal batzuetako laginak aztertu eta jaurlaritzari eta aldundiari jakinarazten dio zein den eurek euskaraz bidaltzen duten agirien ehunekoa eta ehunekoa handitzeko arloz arloko neurriak hartzeko eskatzen dio. UEMAKo udalek jaurlaritzarekin eta aldundiarekin hitzartutakoak lege oinarria du, jaurlaritzak eta aldundiak nork bere aldetik legez jasota baitaukate tokiko erakunde batek euskara hutsezko harremana eskatzen duenean eman egin behar diotela.

5. KANPO-HARREMANAK	HEDADURA	
	Euskaraz	Ele biz

ADMINISTRAZIOEKIKO IDATZIZKO HARREMANAK	%79	%17
ADMINISTRAZIOEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%77	%4
ERAKUNDE PRIBATUEKIKO IDATZIZKO HARREMANAK	%75	%10
ERAKUNDE PRIBATUEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%74	%1
BESTE ENTITATEEKIKO AHOZKO HARREMANAK	%86	%1
BESTE ENTITATEEKIKO IDATZIZKO HARREMANAK	%84	%1

Administrazioa

Administrazioekiko idatzizko harremanak

Entitate batek Administrazioekiko harremanetan idatzizko komunikazioan erabiltzen duen hizkuntza: gutunak, lan-bileretako idatziak, aktak, inprimaki digitalak edo on linekoak, komunikazioak, sare sozialetako harremanak, aplikazio informatikoak eta teknologia berriak eta bestelako dokumentuak. Administrazio batek euskaraz bidalitako komunikazioei euskaraz erantzutea (idatziz). Produktuaren Fitxa teknikoa. Hizkuntza-osagaiak: pantailak, ahots-mezuak. Bermea. Markaren izena. Etiketa. Bilgarria. Salmenta osteko zerbitzua. Dokumentuak (zerbitzua). Markarekin batera agertzen diren mezuak.

UEMAk eta udalak beste udal batzuekin batera, adostuta dute jaurlaritzarekin idatzizko harremana euskara hutsez izango dela.

Jaurlaritzatik eta aldunditik ele bietan jasotzen dira nagusiki jakinarazpenak eta aldundiaren kasuan, gaztelaniaz ere bai.

Oro har, euskaraz administrazioekiko idatzizko harremanak euskaraz %79 dira.

Erakundeek udalaren esku jartzen dituzten euskarri informatikoak, oro har euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa izaten dute, eta udalean euskarazko bertsioak daude lehenetsita. Behin euskaraz lehenetsita daudenean, euskaraz irekitzen dira eta euskaraz erabiltzen dira. Hala ere, badira salbuespenak: Bizkaiko Foru Aldundiaren “Relaciones Municipales” aplikazioa, Kontu-hartzailertzan erabiltzen dutena, gaztelaniaz dago.

Gizarte Segurantzaren aplikazioan %50 dago euskaraz. Gizarte Segurantzak pausu handiak eman ditu arlo honetan; orain bost urte baino askoz gehiago baitago aplikazioa euskaraz, baina agiriak gaztelaniaz ateratzen dira.

Behargintzaren kasuan, euskarri informatiko bidez egiten diren justifikazioak euskaraz egiten dira, baina eskabideren bat gaztelaniaz dago.

Udalak erakundeetara oro har euskaraz bidaltzen ditu komunikazioak; estatuko administrazioetako egoitzetara ere bai, esate baterako Gizarte Segurantzaren Bilboko eta

Durangoko egoitzetara. Baina, salbuespen batzuk ere badaude: Berualak komunikazioen bat gaztelaniaz bidaltzen du; Kontu Epaitegira ere bidali izan da alegazioen erantzunen bat ele bietan; Ingurumenaren kasuan ere, txostenak Euskal Herritik kanpo gaztelaniaz bidaltzen dira; Oinarrizko Lanbide Heziketako Institututik ziurtagiriak ele bietan bidaltzen dituzte Lanbidera edo epaitegira.

Erakundetatik udalean oro har ele bietan hartzen ditugu komunikazioak, baina gaztelaniaz ere bai. Komunikazioa bereziki udalari zuzendutakoa denean, kasuren batean euskara hutsez zuzentzen zaizkigu erakundeek.

Udalak epaitegietara euskaraz bidaltzen ditu komunikazioak, Udaltzaingoak salbu. Udaltzaingoaren kasuan, Gernika-Lumoko, zein Bermeoko epaitegietara, zein horietatik aparte beste guztietara ele bietan bidaltzen dira gutunak, zitazioak, intzidentziak, atxiloketak eta etxean bete beharreko atzipenaldiak (arrestos domiciliarios). Argiketak, ordea, gaztelaniaz bidaltzen dira. Epaitegietatik udalera ele bietan bidaltzen dizkigute agiriak.

Kontratugilearen profila Eusko Jaurlaritzaren ataria da. Euskaraz daukagu jarrita, baina gaztelaniazko bertsiora ere sar daiteke; Share-point Eusko Jaurlaritzak sail konkretu batzuen esku (Antolakuntza eta Teknologi Berriak...) jarrita daukan intranetean, deialdiak euskaraz egiten dira eta bestelako dokumentazio mota bat ele bietan jartzen da arloaren arabera.

Turismo Bulegoaren kasuan, bisitari edo turisten esku jartzeko esku-orriak bakoitza hizkuntza baten bidaltzen dituzte erakundeetatik: bat euskaraz, beste bat gaztelaniaz, beste bat ingelesez, beste bat frantsesez.

BAOra iragarkiak ele bietan bidaltzen dira, Bizkaiko Foru Aldundiak ahal dela ez duelako bere gain hartu nahi itzulpen lana, eta gainera ezer bidaltzekotan euskaraz, epeak atzeratu egiten direlako.

[Administrazioekiko ahozko harremanak](#)

Administrazioekiko telefono bidezko eta bileretako harremanetan erabiltzen den hizkuntza.

Administrazio batek euskaraz hasitako komunikazioei euskaraz erantzutea (ahoz).

Administrazioekiko ahozko harremanetan %77 da euskararen erabilera.

Udaleko langileek lehenengo berba euskaraz egiten dute, eta oro har euskaraz jarraitzeko ohitura dute, eta kasuren batean euskarazko solaskideak ere eskatzen dituzte. Hala ere, solaskideak euskaraz ez badu ulertzen edo zailtasunak baditu hitz egiteko, gaztelaniara jotzeko joera dute.

Gerta daiteke udaleko zenbait langilek lehenengo berba eta elkarrizketa euskaraz egiten hastea, baina elkarrizketak aurrera egin ahala, euskarari ez eustea eta gaztelaniara jotzea. Joera hori ere antzematen da zenbait langile batzuen kasuan.

Jaurilaritzarekin eta aldundiarekin komunikazio asko euskaraz bideratzen dira, baina bai jaurilaritzako langile batzuekin, zein aldundikoekin harremanak gaztelaniaz izaten dira. Erakunde horietako lanpostu jakin batzuetako langileek ez dute gaitasun nahikorik euskaraz aritzeko, eta eurekin hitz egin behar da nahitaez gai konkretu batzuk jorratu edo bideratzeko.

Erakunde jakin batzuetako langileen hizkuntza gaitasuna aipatzearen: aldundian dago langile kopuru handiena euskaraz jarduteko zailtasunekin; Ur Agentzian ere denetarik dago: langile batzuekin aukera izaten da euskaraz jarduteko eta beste batzuekin ez; eta beste erakunde batzuen kasuan, langileen hizkuntza gaitasuna erabatekoa da: Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuan, esate baterako, erabat bermatzen da euskaren erabilera.

Gizarte Segurantzarekin ahozko harremanak euskaraz bideratzen dira.

Kontu epaitegiak egindako auditorian, udalera bidali zituzten hiru langiletik bat ez zen euskalduna. Beraz, ahozko harreman guztiak ez ziren bideratu euskaraz.

Udalak deitzen dituen batzarrek euskaraz izaten dira, beti ere kideak hizkuntza gaitasun nahikoa dutenean euskaraz bideratzeko batzarra.

Beste administrazio batzuek antolatzen dituzten batzarren kasuan, ematen ari dira pausuak; gaur egun aurreko plangintzaldian baino gehiago egiten da euskaraz. Turismo Bulegoaren kasua aipatzearen, formazio batzarrek euskaraz eskaintzen dizkie. Gainerako batzarrek ere euskaraz izaten dira. Turismo Bulegoarekin berarekin bakarrik egiten dituzten batzarren kasuan, nahiz eta beste administrazio horiek orokorrean deitzen dituzten batzarrek gaztelaniaz izan, Turismo Bulegoarekin euskaraz bideratzen dituzte.

EUDELeK antolatutako batzarren kasuan, harrera edo sarrera euskaraz izaten dira, baina eurek bilerak gaztelaniaz.

Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak...

Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak

Entitate batek erakunde pribatuekiko harremanetan idatzizko komunikazioan erabiltzen duen hizkuntza: gutunak, lan-bileretako idatziak, aktak, inprimaki digitalak edo on linekoak, komunikazioak, sare sozialetako harremanak, aplikazio informatikoak eta teknologia berriak eta bestelako dokumentuak. Erakunde pribatu batek euskaraz bidalitako idatzizko komunikazioei euskaraz erantzutea. Entitatearen izenean zerbitzuak ematen dituzten enpresak edota erakundearen menpe dauden enpresekiko idatzizko harremana. Produktuaren Fitxa teknikoa. Hizkuntza-osagaiak: pantailak, ahots-mezuak. Bermea. Markaren izena. Etiketa. Bilgarria. Salmenta osteko zerbitzua. Dokumentuak (zerbitzua). Markarekin batera agertzen diren mezuak.

Erakunde pribatuekiko harremanetan, hau da, finantza entitateekiko harremanetan, hornitzaile eta zerbitzu enpresa eta abarrekiko harremanetan, %75 da euskararen presentzia idatziz.

Langileria Sailak kontratatutako enpresek zerbitzua euskaraz ematen dute eta dokumentazioa euskaraz aurkezten dute.

GIZek kontratatutako enpresa guztiekin harremanak euskaraz bideratzen dira: fakturak, txostenak... euskaraz aurkezten dituzte.

Kontu-hartzailetzan, oster, kontratatutako enpresa guztiek ematen dute zerbitzua gaztelaniaz.

Erosketa Saileko kontratazio propioetan, kontratatutako enpresa edo hornitzaileen %50ek eskaintzen dute zerbitzua euskaraz: Montterekin eta Lidera Higienerekin euskaraz. Lirecorekin gaztelaniaz eta Adiparekin guk eurei euskaraz eta eurak udalari gaztelaniaz.

Enpresek edo hornitzaileek sail gutxi batzuei aurkezten dizkiete fakturen erdiak edo gehienak euskaraz. Oro har, fakturen %20 aurkezten dizkigute euskaraz zerbitzu enpresa edo hornitzaileek.

Erosketa Saitetik bideratu arren, beste sail batzuetarako diren zerbitzu enpresa edo hornitzaileen kontratazioen kasuan, harremanen %20 bideratzen dira euskaraz eta %80 gaztelaniaz, gehienek ez dakitelako euskaraz. Gaur egun, dena den, hornitzaile eta zerbitzu enpresek orain urte batzuk baino gutxiago kexatzen dira komunikazioak euskaraz bidaltzearren.

Berualaren kasuan, kontabilitatea kanpoko enpresa batek eroaten du gaztelaniaz.

Erakunde pribatuek gutunak ele bieran bidaltzen dizkiote udalari; udalak eurei euskaraz.

Aliatuen kasuan, Turismo Bulegotik watchapp bidezko mezuak oro har euskaraz bidaltzen dira, baina gaiaren arabera kasu batzuetan lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz bidaltzen dira. Taldekideek, ordea, eurek gura duten moduan idazten dute.

Arrain Azokako facebooka %80 elikatzen da euskaraz; gainerakoa, gaztelaniaz eta ingelesez elikatzen da, partekatzen dena dagoen hizkuntzan.

Diruzaintzan erabiltzen duten banka elektronikoa euskaraz da.

Posta elektronikoz bidalitako mezuen kasuan, normalena da herrikoekin euskaraz bideratzea komunikazioak eta herritik kanpokoekin gehiago gaztelaniaz.

[Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak](#)

Erakunde pribatuekin izaten diren elkarriketak, bilera arruntak eta teknikoak, telefono bidezko

harremana, etab. Erakunde pribatu batek euskaraz hasitako ahozko komunikazioei euskaraz erantzutea. Entitatearen izenean zerbitzuak ematen dituzten enpresak edota erakundearen menpe dauden enpresekiko ahozko harremana.

Erakunde pribatuekiko harremanetan, hau da finantza entitateekiko harremanetan, hornitzaile eta zerbitzu enpresa eta abarrekiko harremanetan, %74 da euskararen presentzia ahoz.

GIZek kontratatutako enpresa guztiekin harremanak euskaraz bideratzen dira.

Kontu-hartzailetzan kontratatutako enpresa guztiek ematen dute zerbitzua gaztelaniaz.

Erosketa Saileko kontratazio propioetan, kontratatutako enpresek edo hornitzaileek %50 egiten dute euskaraz.

Erosketa Saitetik bideratu arren, beste sail batzuetarako diren kontratazioen kasuan, %20 bideratzen dira harremanak euskaraz, eta %80 gaztelaniaz.

Turismo Bulegoak antolatuta, ostalariekin egin zen aurkezpenean parte hartu zuten hainbat ostalarik ez dakite euskaraz, baina aldeztu aurretik ez zegoenez jakiterik nortzuk parte hartuko zuten, euskaraz eta gaztelaniaz prestatu zen aurkezpena. Euskaraz ez zekiten edota ulertzen ez zuten ostalariek parte hartu zuten, ezin izan zen aurkezpena euskaraz egin, baina ppt-a euskaraz jarri zen. Euskaraz egiteko aukerarik egon izan balitz, ppt-a gaztelaniaz jarriko zen (beharrezkoa izatekotan, gaztelaniaz jartzea).

Banketxeetako langileen artean, gero eta langile gehiago dago harremanak euskaraz bideratzeko gaitasunarekin eta gaitasun handiarekin gainera.

Hirigintza arloan, obrak egiteko etortzen diren langileen kasuan, ez da bermatzen hizkuntza gaitasunik.

Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.

Beste entitateekiko idatzizko harremanak

Entitate batek beste entitateekiko harremanetan idatzizko komunikazioan erabiltzen duen hizkuntza: gutunak, lan-bileretako idatziak, aktak, inprimaki digitalak edo on linekoak, komunikazioak, sare sozialetako harremanak, aplikazio informatikoak eta teknologia berriak eta bestelako dokumentuak. Beste entitate batek euskaraz bidalitako idatzizko komunikazioei euskaraz erantzutea.

Beste entitateekiko idatzizko harremanetan udalak %86 erabiltzen du euskara. Herriko eragileekin euskaraz aritzen da udala, oro har.

Sare sozialetako harremanen kasuan, Turismo Bulegoko jokaera hartu da kontuan: irizpidea euskaraz idaztea da, baina kasu batzuetan, mezuaren garrantziaren edo gaiaren arabera, euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen dira mezuak. Gero, taldekideek eurek gura duten moduan idazten dute. Arrain Azokako facebooka %80 elikatzen da euskaraz; gainerakoa, gaztelaniaz eta ingelesez ere bai, informazioa dagoen jatorrizko hizkuntzan, hain zuzen ere.

Turismo Bulegoak eragileei euskaraz bidaltzen dizkie komunikazioak. Behin euskaraz hartu ostean, gaztelaniaz bidaltzeko eskaria egiten dutenei, gaztelaniaz bidaltzen zaizkie. Komunikazioen bat ele bietan ere bidali izan dute.

Kirol Patronatuaren kasuan, banketxeei ordainketak egiteko aginduak euskaraz ematen zaizkie.

Beste entitateekiko ahozko harremanak

Beste entitateekiko telefono bidezko eta bileretako harremanetarako hizkuntza. Beste entitate batek euskaraz hasitako ahozko komunikazioei euskaraz erantzutea.

Beste entitateekiko ahozko harremanak %84 bideratzen dira euskaraz udalean.

Herriko eragileekin euskaraz aritzen da udala, oro har.

5. Kudeaketa sistema

ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea

Hizkuntzen kudeaketarako planteamendua, epe luzerako ikuspegiarekin eta epe ertain edota laburrerako helburuekin, eta horren ebaluazioa.

“Hizkuntza-politika” (helburu nagusia, hizkuntza-irizpideak, ordenantzak, etab.) zehaztu da. Planteamenduak erakundeari bere osotasunean eragiten dio eta hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratuta dago (kalitatearekin, ingurumenarekin eta prebentzioarekin egiten den bezala). Erakunde barruko eta kanpoko interes-taldeen (merkatuaren, hornitzaileen, aliatuen, administrazioaren, gizartearen, etab.) hizkuntza-beharrizanak kontuan izaten dira, organo nagusietan kudeatzen da, pertsonen eta gainerako interes-talde adierazgarrienei zabaltzen zaie, horien proaktibotasuna pizten da (euskaraz hitz egiten gonbidatzeko elementuak), eta beraien gogobetetzea jasotzen da. Entitateak itunak eta aliantzak dauzka beste entitateekin euskarazko komunikazioak sustatzeko, euskarazko baliabideak lortzeko (aplikazio informatikoak, prestakuntza euskaraz, etab.) eta gizartean egon daitezkeen beharrei erantzuteko (adibidez, hezkuntza-sistemari profesional euskaldunak eskatzea). Entitatea euskararen erabileran eredu da. Hizkuntza-politika erakundeak dituen

bestelako plangintza eta ikuspegiekin uztartua dago eta berez dituen kudeaketa-erremintetan txertatua dago. Sistematikoki egiten da aurrerapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa. Hobekuntza-ekintzak martxan jartzen dira, eta lortutako emaitzek atzera egin ez dezaten neurriak hartzen dira. Hizkuntza-kexak jasotzen dira, konponbidean jarri eta berriro ez gertatzeko neurriak hartzen dira. Hizkuntzen kudeaketako emaitzen joera positiboa den edo ez aztertzen da. Ebaluazio-datuak jasotzeko metodologia eta prestakuntza jaso dute.

Bermeoko Udalak indarrean izan du 2013-2017 epealdirako erabilera plana. Epeak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak ezartzen ditu. Plana plangintzaldiko lehenengo urtean onartu behar zen (hau da, 2013an). Bermeoko Udalak 2013ko abenduan onartu zuen plana Tokiko Gobernu Batzarrean eta 2014ko urtarrilean berretsi zuen Osoko Bilkuran. Plan hori 2013an egindako diagnostikoan dago oinarrituta. Planarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren txosten bat ere onartu behar izaten da. Jaurlaritzaren txosten horrek adierazi behar du Bermeoko Udalak planean jasotako guztiak legea betetzen duela. Aurretik, Euskara teknikariak planaren edukien azalpenak eman zizkien udal langileei eta udal hautetsiei. Legealdiaren hasieran, bai udalak, zein UEMAk hautetsientzako saio batzuk antolatzen dituzte, planaren eta UEMAren berri emateko (irizpideak...). Planeko helburuetatik urtez urte lantzeko helburuak hautatzen dira, eta horiek kudeaketa plan batean jasotzen dira.

Beraz, euskarri fisikoak hauek dira: erabilera plana (irizpideak bertan daude), erabilera plana egiteko aintzat hartu zen diagnostikoa, urtez urteko kudeaketa planak eta urtez urteko helburuei lotutako jarraipen fitxak.

Udalak zehaztuta dauka hizkuntz politika, eta txertatuta ditu hizkuntz irizpideak udal jarduera orotan. Udalaren aginte organoetan aintzat hartzen dute udal jarduerak hizkuntz erabileran eragin dezakeen, eta, oro har, irizpideak behar bezala betetzen eta betearazten dituzte.

Legegintzaldi hasieran arduradun politikoekin formazio eta informazio saioak antolatu ziren udalaren ibilbidea, hizkuntza irizpideak, hizkuntza lidergoa eta aurrera begirako lan ildoak landu eta zehazteko, eta emaitza *Bide-orria* deritzon agiria izan zen.

Udalaren zati handi batek (Behargintza, Oinarrizko Lanbide Heziketako Institutua, Udalaren

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua, Kirol Patronatua eta Beruala, SA kenduta), urrezko Bikain ziurtagiria lortu zuen 2011n. Beraz, udala euskararen erabilera eredua da, eta hizkuntza oro har bestelako plangintza eta ikuspegiekin uztartuta dago.

Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak. Erakundeak arduradun bat izendatu du eta baliabideak eskuratu dizkio (baliabide materialak, denbora, laguntzailearen bat, etab.).

Ekimen planifikatua garatzeko batzorde, segimendu-talde edo lan-talde bat eratu da. Hizkuntza-kudeaketak ekarritako gastuetarako (pertsonek dedikazioa, hizkuntza-trebakuntza, hizkuntza-lanabesak, itzulpena, etab.) aurrekontuak taxutzen dira. Euskarazko dokumentuak estandarizatu dituzte, lanari lotutako zerrenda terminologikoak egin dituzte.

Kudeaketa plan horien jarraipena udalak kudeaketa orokorrerako abian izan dituen tresnen bidez eta batzordeetan egin da. Bertan, udal teknikariek, Euskara teknikariak eta arduradun politikoek parte hartu izan dute. Helburukako aurrerapenak, atzerapausoak eta bestelakoak jarraipen fitxetan jaso izan dira.

Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzen dira. Sail edo zerbitzu bakoitzean arduradun bat izendatu zen eta Euskara Sailarekin elkarlanean adostu eta bideratzen dira urtez urteko helburuak.

HELBURUEI BEGIRAKO NEURRIAK BETETZEKO AZPIEGITURA

1. Txosten honetan zehaztutako hizkuntza irizpideen betetze maila neurtzeko eta dagozkion helburuak betetzen direla bermatzeko, Bermeoko Udalak Erabilera Planaren Jarraipen batzordea sortuko du. Erabilera Planaren Jarraipen batzordea kide hauek osatuko dute: UEMAko hizkuntza normalizatzaileak, udaleko Euskara zinegotziak, udaleko hizkuntza normalizatzaileak eta hiru langileak. Langile horiez gain, beste langile batzuek ere hartuko dute parte euren zereginekin lotutako gaiak aztertzen direnean.

- Arduradun politikoek: garrantzi handia izango du UEMAko ordezkariak edo euskara zinegotziak parte hartzea.

- Udal langileek: garrantzi handia izango du zenbait zerbitziburuk edo sailetako zenbait euskara arduradunek parte hartzea.
- UEMAko hizkuntza normalizatzailea: garrantzi handia izango du UEMAko hizkuntza normalizatzaileak parte hartzea.

Horrenbestez, zeregin hauek izango ditu Jarraipen batzordeak:

1. Kudeaketa planen jarraipena eta balorazioa egingo ditu.
2. Hizkuntza irizpideak eta helburuak udalaren kudeaketan zenbateraino bete diren jarraipena egingo du.
3. Kudeaketa planeko helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzen diren bermatzeko ardura izango du.
4. Jarraipen batzorde batetik besterako lanak eta ardurak bete diren baloratuko du, eta, behar izanez gero, egokitzapenak egingo ditu.
5. Udalbatzari eta Tokiko Gobernu Batzarrari jakinaraziko dio zein lan ildo hartuko diren, eta beharrezkoa bada zein lan talde eratu behar den.
6. Planean zehaztutako helburuak betetzeko lorpenen eta traben berri izango du.
7. Neurri zuzentzaileak proposatuko ditu (behar izanez gero).
8. Gutxienez, urtean bitan elkartuko da, eta hurrengo aldirako lan ildoak eta ekintzak proposatzea.

Adierazleak	Datua	Oharrak
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza	80	Kudeaketa planen jarraipena Euskara batzordeak egin du modu sistematikoan, Batzorde operatiboak eta Zuzendaritza

batzordeak egitea (0-%100)		batzordeak, ordea, modu irregularrago batean. Euskara batzordean, alderdi guztietako zinegotziek, Euskara zinegotziak eta Euskara teknikariak hartzen dute parte; Batzorde operatiboan, alkateak eta sailtako arduradun teknikoak; eta Zuzendaritza batzordean, arduradun politikoak. Euskara teknikariak parte hartu izan du, erabilera planarekin lotutako helburuen jarraipena egiteko bai Euskara batzordean eta bai Batzorde Operatiboan. Bestalde, lan ildo jakin batzuekin sortzen diren kontuen berri Euskara zinegotziari eta dagokien udal langileei eman izan zaie. Euskara zinegotziari informazio argia eta zehatza eman zaio, gainerako arduradun politikoei helarazteko.
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-%100)	91	Udal langileek euskara txertatuta dute euren eguneroko lanean, eta zalantzak edo gabeziak dituztenean Euskara Sailarekin jartzen dira harremanetan.
Euskara sortze hizkuntza (0-%100)	100	Euskara da sortze hizkuntza %100ean. Kasu batzuetan gaztelaniazko iturrietatik hartzen dira txosten, araudi eta abarrak, baina udalean sortutakoa, euskaraz sortzen da.
Dokumentuen estandarizazioa (0-%100)	66	Udaleko agiriak euskaraz edo ele bietan daude. Kasu askotan, dokumentu estandarizatuak erabiltzen dira (%85ean),

		baina horiek guztiak ez daude eguneratuta hizkuntzaren ikuspegitik. Zenbait kasutan, estandarizatuta egon arren, hizkuntzari, egiturari, edukiari... erreparatuta estandarizatzeko beharra dute.
--	--	--

Bezeroak edo herritarrek eta produktua edo zerbitzua: Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko eta herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea

Bezeroak edo herritarrek, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa

Bezeroen edo herritarren hizkuntza-beharrizanak identifikatuta daude eta kontuan izaten dira ohiko komunikazioetarako, zerbitzua edo produktua garatzeko, merkaturatzeko edo eskatzeko orduan, etab. Hornitzailea kontratatzean hizkuntza-politika eta dagozkion irizpideak betetzen dira eta jarraipena egiten da. Erakundeak bezeroei edota herritarrei eskainitako zerbitzuak emateko egindako kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezartzen dira eta horren jarraipena egiten da. Administrazioen kasuan, diru-laguntzak, hitzarmenak, etab. izapidetzeko orduan hizkuntza-irizpideak kontuan izaten dira.

Udalaren jarduera guztietarako hizkuntza irizpideak zehaztuta daude. Euskararen erabilera normalizatzeko planean jasota egotez gain, horren berri ematen zaie udal langileei behin plana onartu ostean eta arduradun politikoei kargua hartu berritan. Euskararen erabilera normalizatzeko planaren egoera eguneratzeko udal langileengana jotzen da, eta hizkuntza ofizialen erabileraren gainean zalantzarik izanez gero, argitu egiten dira.

Udaleko langile edota arduradun politikoen artean eta Euskara Saileko langileen artean elkarlanerako bidea eginda dago, zalantzak argitzeko, argibideak eskatzeko... Hizkuntza irizpideak modu naturalean ezartzen dira, egoera soziolinguistikoak horretarako aukera ematen duelako (Bermeoko euskaldunen kopurua Eustaten 2016ko datuen arabera %73koa da eta ia euskaldunena %11koa. Eguneroko lanean hizkuntza irizpideak txertatzen dira aspalditik.

Arduradun politikoekin legealdi hasieran (karguak hartu berritan) batzar bat egiten da UEMA zer den azaltzeko eta hizkuntza irizpideen berri emateko, eta beharrezkoa balitz, batzarrak egiteko dei egiten zaie. Udalak ere gauza bera egiten du modu zehatzago batean udalaren egoeraren berri emateko, horretarako antolatzen diren informazio eta formazio saioen bitartez.

Udalak hizkuntz irizpideak aintzat hartzen ditu hornitzaileak kontratatzerakoan, baimenak ematerakoan...

Adierazleak	Datua	Oharrak
HOElen betetze maila (0-%100)	67	Hornitzaile eta zerbitzuen kontratazioan, baita diru laguntzetan eta zenbait hitzarmenetan ere ezartzen dira hizkuntza irizpideak, baina jarraipen sistematikoan dago hutsunea. Bestalde, euskaraz eman ahal izango liratekeen zenbait zerbitzu ele bietan edo gaztelaniaz eskaintzen dira.

Pertsonak: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

Langileen kontratazioa eta barne-sustapena

Langile berriak kontratatzerakoan eta lanpostuak barne-promozioaren bidez betetzen direnean, hizkuntza-politika kontuan hartzen da. Euskararen presentzia eta erabilerari, eta ezagutza erabilerarekin lotzeko egitasmoen buruzko informazioa ematen zaie. Pertsonen euskara gaitasuna eta lanpostuen hizkuntza-beharrak uztartzen dira. Kontratatuari lehen momentutik azaltzen zaio zein den bere lan-hizkuntza. Euskara ulertzen dutenekin lehen kontaktua euskaraz dela bermatzen da. Azterketa komunikatiboak egiten dira langileen hizkuntza-prestakuntza beharrak identifikatzeko, eta horren arabera antolatzen dira ikastaroak. Ebaluazioak egiten dira aurrerapen-mailaren jarraipena egiteko eta atzerapausoak ekiditeko. Langileen euskara-prestakuntza lanpostuen perfilen eta beharren arabera da. Ikaste-prozesuetan ari diren (euskalduntzen zein alfabetatzen) langileen jarraipena egiten da, eta ikastetik erabilerara salto egiteko urratsak egiten dira eta konpromisoak hartzen dira. Erakundeak

pertsonen euskarazko gaitasunaren errolda du eta eguneratu egiten du. Herri administrazioetan derrigorrezko indizea eta egiaztatze-maila ebaluatuko dira. Langileei hizkuntza-politikaren berri eman zaie, guztiek ezagutzen dute eta badakite hizkuntza-irizpideek nola eragiten dioten bakoitzari.

Udaleko eta bere erakunde autonomoetako lanpostu guztiek 4k izan ezik dute derrigortasun data ezarrita. Beraz, ezin da langilerik hasi lanean Bermeoko Udalean ez badu lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Azken plangintzaldian hainbat langile hasi dira lanean Bermeoko Udalean. Udalak badu langile berriak lanean hasten direnerako protokolo bat aktibatuta. Udal langile berriekin bilera bat egiten da, eta bertan hainbat informazio ematen zaie: UEMako udal batean egoteak dituen ondorioak/konpromisoak, udalak hizkuntza normalizazioan egin duen ibilbidea, euskararekin nola jokatzeko den hainbat lan jardueretan, planaren hizkuntza irizpideak, udalak eskaintzen dituen baliabideak...

Arduradun politikoei dagokienez, legealdia hasi berritan galdetegi bat ematen zaie, trebetasunka euren euskara maila zein den aitortu dezaten (irakurmenean, idazmenean, ulermenean eta mintzamenean).

Lidergoa eta parte-hartzea

Erakunde ordezkariak euskara-batzordea, segimendu-taldea, etab. sustatzen dituzte eta horietan parte hartzen dute. Pertsonalki jakinarazten diete hizkuntza-politika erakundea osatzen duten pertsonen. Ahalegindu diren pertsonak eta taldeak aintzatesten dituzte, bai eta aurrerapen nabarmenak lortu dituztenak ere. Euren euskararen jakite-maila pertsonala eta erabilera-maila areagotu egiten dute eta euren laguntzaileak euskara ikas eta erabil dezaten animatzen dituzte. Lidergoa lantzeko proiektuak aurrera eramaten dira erakundean eta eredu dira. Bilakaera aztertu eta aurrera urratsak ondo kudeatu daitezela bermatzen da. Erakunde-ordezkariek eta zuzendaritzako kideek parte hartzen dute erabilera-planetako ekimenetan, batzordeetan, jarraipen-bileretan eta bestelako organoetan.

Hizkuntz irizpideak ezartzerakoan behar bezala ari ez diren udal hautetsientzat tailer/saio bat diseinatuta dauka UEMak, kasu jakinen gainean nola jokatu azaltzeko. Bermeoko Udaleko hautetsiekin oraingoz ez dugu halakorik behar izan. Hizkuntz arloan, alkateak eta udal hautetsiek naturaltasunez barneratu dituzte hizkuntz irizpideak eta beren lanaren parte dela onartu dute inolako arazorik gabe. Bai udaleko Euskara Saila, zein UEMA solaskide baliagarriak dira eurentzat beren jardunean, eta, zalantzak sortu zaizkienean, Euskara Sailera, zein UEMara jotzeko aukera dute.

Adierazleak	Datua	Oharrak
-------------	-------	---------

Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	87	Lanpostuen zerrendako langileak kontuan hartzen baditugu, %90 dira lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak. Langile guztiak hartzen baditugu kontuan, hau da, lanpostuen zerrendakoak, Beruala, SAkoak eta kontratatutakoak, %87 dira lanpostuaren hizkuntza eskakizuna edo deialdia egin zenean eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak.
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	100	Udaleko ordezkarri politiko guztiek dute hizkuntza gaitasun nahikoa udalaren euskarazko funtzionamendua ahalbidetzeko.
Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko	90	Langileen balorazioa planarekiko ona da. Langileen artean, ondo ikusten dira oro har planaren helburu nagusia eta ezarritako hizkuntza irizpideak, baina badira xehetasun batzuk: legeria betetzeko zailtasunak; helburu jakin batzuk betetzeko zailtasunak; kontratazioetan irizpideak betetzeko zailtasunak; lanpostuen hizkuntza eskakizunei buruz, zein hizkuntza eskakizun horiek egiaztatzeke udalak eskaintzen dituen baliabide gabezia; beste erakunde batzuekin harremanak euskaraz bideratzeko zailtasunak; planaren komunikazioari buruz; udaletik bideratzen diren idazkien komunikazio ereduari buruz, hau da, herritarrekin erraz eta modu antolatuan komunikatzeko zailtasuna; zalantzak zenbait irizpide betetzeko orduan... Arduradun politikoei ez zaie galdetu.

Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	89	Ardura nabaria da bai arduradun politikoen aldetik, zein langileen aldetik. Arduradun politikoek modu aktibo batean parte hartzen dute erabilera planarekiko ekimenetan, zein helburuen betetze mailan, gorabeherak gorabehera. Udal langileen kasuan ere parte hartzeko prestutasuna erakusten dute zenbait ekimenetan (ikastaroak antolatzean, Euskaraldiarekiko atxikimenduan, ahozko erabilera sustatzeko ekimenetan...), nahiz eta langile batzuen aldetik interes eza ere sumatzen den eta zenbait langileren kasuan, lan kargak ez die ahalbidetzen ekimenetan modu aktibo batean parte hartzen, ezta hizkuntza helburuei, saileko gainontzeko helburuei besteko garrantzirik ematen.
---	-----------	---

AMIA matrizea

Diagnostikoan Bermeoko Udaleko azterketa zehatza egin ostean, AMIA matrizean jaso dira erakundearen jardunaren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak. Zati honen helburua da dagokion horrek begirada batean ikustea udalean euskarak lan-tresna bezala duen lekua.

AHULGUNEAK	MEHATXUAK
-Langile gutxi batzuk ez dute egiaztatuta lanpostuaren hizkuntza eskakizuna.	-Baliabide informatiko askok ez dute bermatzen euskarazko funtzionamendua,

-Lanpostu batzuk ez dute ezarrita lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, ezpada maila bat beheragokoa, horrek dakarren arazoarekin euren produkzioa euskaraz izateko. -Lan hizkuntza ahoz maila ez formalean ez da erabat euskara. Ez dator bat langileen gaitasuna, erabilerarekin. -Udal langile eta ordezkari politikoek erakusten dute atxikimendua euskararekiko zenbait ekimenetan, Euskaraldian esate baterako, baina lehentasunik ez ematea ere sumatzen da antolatzen diren beste zenbait ekintzetan. -Udalak eskaintzen duen kultura eskaintza ez da erabat euskaraz, eta bereziki euskal identitatea sustatzeko ekintzen presentzia nabarmenik ez da antzematen. -Herritarrei zuzendutako idazki eta eredu askok ez dituzte bermatzen hizkuntza kalitatearen parametroak; idatzi batzuk astunak, ilunak, ulertezinak dira..., ez bakarrik hizkuntza kalitatearengatik, ezpada euren egitura edo edukiagatik... -Zerbitzu eta hornitzaileen kontratazioetan ez da jarraipen sistematikorik egiten jakiteko ezarritako hizkuntza irizpideak betetzen diren. -Diru laguntza deialdietan ez da jarraipen sistematikorik egiten jakiteko ezarritako	eta informatika enpresa askok produktua euskaraz eskaini arren, produktuaren kalitatea ez da ona, eta eguneratzeak... ez dituzte behar den moduan, ezta epeetan euskaratzen. -Beste erakunde batzuek Bermeoko herritarrei zuzenduta bideratzen dituzten idazkietan, kanpainetan, karteletan... elebitasuna orekatuegia da; sarritan ez zaio lehentasunik ematen euskarari. -Gaztelaniazko komunikabideek, EITBk esaterako, ez dute bermatzen arduradun politikoek, ez udal langileek euskaraz aritzea komunikabideen aurreko adierazpenak egiteko orduan. -Herri administrazioek zenbait kasutan ez dute kontuan hartzen hizkuntza, ez bideratzen dituzten kontratazioetan, ez hitzarmenetan, ez proiektuetan, ez planetan..., horrek udalean, zein gainontzeko erakunde edo enpresetan duen eraginarekin. -Urteetan zehar sendotasuna izan duten elementuak kolokan jartzeko arriskua handia da: lege aldaketak daudenean, kargu aldaketak daudenean... -Herritarrei komunikazioak ele bietan bidaltzeak euskara lan hizkuntza izateari mehatxua dakarkio. -Legeria asko gaztelaniaz dago. Euskaraz
--	---

hizkuntza irizpideak betetzen diren. -Zenbait udal langile oraindik ez dira jabetu zerbitzua euskaraz emateak duen garrantziaz, ezta langileen arteko laneko elkarrizketak euskaraz bideratzeak duen garrantziaz. -Herritarrekin, elkarteekin... antolatzen diren batzar, hitzaldi eta abarretan euskararen presentzia nabarmen hasten doa, baina udal langileek ez dute baliabide nahikorik hizkuntza kudeaketa egokia egiteko. -Zenbait langilek nahiago dute prestakuntza gaztelaniaz jaso, nahiz eta euren lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izan. -Udalak kontratatzen dituen hornitzaile eta enpresa askok komunikazioak euskaraz bideratzeko gaitasunik ez izateak erdaldundu egiten du udalaren lan hizkuntza, eta zenbait kasutan zerbitzu hizkuntza ere bai. -Euskara nolabait erdigunean badago udalean, baina ez dauka erabateko lehentasunik, eta zeharlerrotasuna ez dago erabat garatuta. -Euskara zerbitzuen sare indartsuagorik ez dago, udalaren erabilera planaren zenbait ekintza modu bateratuan bideratzeko. - Bikain ziurtagiria ez da lortu udaleko sail eta zerbitzu guztietan. -Oinarrizko Lanbide Heziketako Institutuak	dagoen zenbait legeria ez dago eguneratuta eta horrek legeria hori erabiltzeko oztopoak sortzen ditu. Horrezaz gain, egunerokotasunean erabiltzen diren lan tresna batzuk ez daude euskaraz edo badaude ere, ez daude eguneratuta edo ez dira kalitatezkoak: hirigintza alorrerako aurrekontuak egiteko prezioen zerrenda esaterako. -Ez dago modurik derrigortasun data iraungita duten lanpostuak betetzen ari diren langileei hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasunik ezartzeko. -Administrazioek euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dizkigute produktu asko, nahiz eta udalaren lan hizkuntza euskaraz izan: aplikazio informatikoak... -Administrazioetatik datorkigun formazio eskaintza hein handi batean gaztelaniaz da. Lan hizkuntza euskara duten langileak izan arren, neurri handi batean gaztelaniaz hartzen dute lanerako prestakuntza, eta horrek zailtasunak dakartzkio lan hizkuntzari, lan prestakuntza norbere lan hizkuntzan hartzea egokiena baita. -Beste administrazio batzuek langile erdaldunak edo gaztelaniaz funtzionatzen dutenak jartzea udalaren esku edo udalarekiko komunikazioetarako, oztopoa da udalaren lan eta zerbitzu hizkuntzan eragozpenak sortzen ditu.
---	---

ez ditu eskaintzen eskolak D ereduari. -Sailetan prestutasuna ikusten da maila urtez urteko kudeaketa planak elkarlanean, komunikazioan oinarrituta... bideratzeko, baina exekuzioari lehentasun gehiago eman beharra antzematen da. -Udal langileek zenbait kasutan modu ez kontzientean gaztelaniarako joera dute, elkarrizketa ez formaletan; batzuetan ez dira ohartzen zein hizkuntzatan ari diren.	- Estatuko administrazioek eta Euskal Herri mailakoek ez dute bermatzen zerbitzua euskaraz eskaintzea. -Beruala, SA, euskararen erabilera planean sartuta egon arren, bertako langileek ez dute aukerarik IVAPen bitartez euskara ikasteko eskoletan parte hartzeko. -Agiriak sortzeko iturriak zenbait kasutan gaztelaniazko iturrietatik hartzen dira eta horrek momentu puntualetan bada ere, lan hizkuntza gaztelania izateko arriskua dakar.
INDARGUNEAK	AUKERAK
-Udalaren plan estrategikoaren misioan, bisioan txertatuta dago erakundeak euskalduna izan gura duela. -Derrigortasun data ezarrita dute ia lanpostu guztiak. -Langile gehienek egiaztatuta dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna. -Langile ia guztiak dute hizkuntza gaitasuna euskara lan hizkuntza, zein zerbitzu hizkuntza moduan erabiltzeko. -Ordezkaritza politiko guztiek dute gaitasuna euskaraz bideratzeko euren lana udalean. -Udalan izandako ordezkari politiko guztiek bideratu dute hizkuntza politika	-Herriarrek udala euskarazko erabilerarekin lotzen dute. -Bermeon herritarren %73 euskaldunak dira eta %11 ia euskaldunak. -Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta jarrera kontzienteak lantzeko ekintzak bideratzen dira herritarrei zuzenduta (TELP, Euskaraldia...), eta herritarren erantzuna ona da. -Formazioa euskaraz hartzeko gaitasuna dute udal langile eta arduradun politikoek. -Gero eta gehiago dira gainontzeko administrazioetan hizkuntza gaitasun egokia duten langileak

eraginkorra eta bateratua azken legeegintzaldietan. -Arduradun politikoek eredugarritasuna eta lidergoa erakusten dituzte udalaren izenean parte hartzen duten ekimenetan. -Udal langile eta ordezkari politikoek atxikimendua erakusten dute euskararekiko. Horren erakusgarri Euskaraldian izan duten parte hartzea. Beste ekintza batzuetan parte hartzeko erresistentziaren batzuk ere nabarmentzen dira. -Udalaren lan hizkuntza idatziz euskara da hein handi batean, eta ahoz maila formalean ere bai. Ahozko maila ez formalean badago zer hobetu. -Bermeoko Udalean lehenengo berba euskaraz egiten da. -Identifikazio elementuak daude jakinarazteko euskaraz egiten dugula. -Herritarrek udalarengana euskaraz zuzentzeko ohitura gero eta zabaldago dago. -Zerbitzuak hein handi batean euskaraz eskaintzen ditugu eta horiei lotutako elementuak ere (publizitatea, izena emateko orriak, egitarauak...) euskaraz eskaintzen ditugu. -Udalaren hizkuntza paisaia, irudi korporatiboa, errotulazioa... euskaraz	-Estatu mailako administrazioek pausuak ematen ari dira euren baliabideak euskaraz jartzeko gure esku. -UEMAren partaide izateak aukerak ematen dizkigu norabide berean lan egiteko eta zenbait egitasmo elkarlanean bideratzeko. -IVAPek udal langileei hizkuntza gaitasuna areagotzeko eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ikastaroak eskaintzen ditu, eta UEMAk eta IVAPek hizkuntza trebakuntza eskaintzen die udal langileei. -Eusko Jaurlaritza, zein gainerako administrazioek apustu sendoa egiten ari dira erakundeen hizkuntza normalizazioan, eta herritarren aktibatze lanean.
--	---

daude hein handi batean.

-Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta jarrera kontzienteak lantzeko ekintzak bideratzeko aukerak badaude udalean (hizkuntza lidergoa, TELP, Euskaraldia, Eusle metodologia bidezko esku-hartzeak, arduradun politikoak ahalduntzeko saioak...).

-Plangintzaldi hasieran, lidergo buruzko saioak bideratu ziren, EraLan esku-hartzearen barruan, eta bertako emaitzak eta ondorioak aintzat hartu dira urtez urteko kudeaketa planak bideratzeko orduan.

-Legegintzaldi hasieran, hizkuntza normalizazioaren, soziolinguistikaren eta hizkuntza lidergoaren prestakuntza hartzen dute arduradun politikoek. Diskurtsoaz jabetzeko tresnak ere eskaintzen zaizkie, eta administrazio hizkeraz jabetzeko trebakuntza ere bai.

-Urrezko Bikain ziurtagiria du udalak 2011n egiaztatuta udaleko zenbait sail eta zerbitzutan.

- Udal langileak eta arduradun politikoak, oro har, kontziente dira zerbitzua edo produktua euskaraz emateak duen garrantziaz.

- Zenbait udal langile eta arduradun politikok euskararekiko jarrera aktiboa eta lidergoa erakusten dute udaletik bideratzen diren ekintzetan.

-Herriarrei bideratutako zenbait idazki ulerterrazak dira.

- Zerbitzu eta hornitzaileen kontratazioetan ia modu sistematikoan ezartzen dira hizkuntza irizpideak.

-Diru laguntza deialdietan modu sistematikoan ezartzen dira hizkuntza irizpideak.

-Webgunean eta sare sozialetan euskararen erabilera nagusitzen da.

-Euskararen erabilera normalizatzeko planaren irizpideen komunikazioan gabeziak antzematen dira eta irizpideak garatzeko beharra ere sumatzen da.

-Elebitasun simetrikotik harago bide luzea egin du udalak azken hamarkadetan.

-Udal langileei, zein arduradun politikoei baliabideak eskaintzen dizkie Euskara Sailak lana erraztasun gehiagorekin egiteko: zuzenketak, itzulpenak, trebakuntza lana...

-Langile berriei UEMAren berri eta udalaren hizkuntza ibilbideen, hizkuntza irizpideen eta Euskara Sailak eskaintzen dizkien baliabideen berri ematen zaie.

-Euskararen erabilera normalizatzeko planak orain urte batzuk izan zuen inposizio kutsua desagertzen ari da, eta zeharlerrotasuna gutxika-gutxika indarra hartzen ari da.

-Helburuak modu bateratuan edo

adostasunean jartzeak sailekin elkarlanean, helburu horiek betetzeko berme handiagoa ematen du.

-Udal langileek eta arduradun politikoek gero eta argiago dute udala eragile garrantzitsua dela euskaren normalizazioan eragiteko eta udalaren euskararekiko erantzukizunaz gero eta kontzientziario handiagoa dago.

5. ERABILERA PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

	HASIERAN		AURREIKUSITAKOAK	
ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	EUSKARAZ	ELEBITAN	EUSKARAZ	ELEBITAN
ZERBITZU-HIZKUNTZA				
ERAKUNDEAREN IRUDIA				
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak				
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	80	11	90	5
Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak				
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak.	93	4	96	4
Jendaurreko ekitaldiak	77	7	87	7
Herritarrei begira antolatutako ikastaro eta jarduerak	65	1	75	5
Ingurune digitala				
Webgune eta sare sozialen edukia	93	6	97	3
HERRITARREKIKO HARREMANAK				
Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.				
Idatzizko harremanak	80	16	85	8
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak.	100	0	100	0
Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.				
Harrera	98	1	99	1
Telefonoz, on-line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	74	8	80	8
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	100	0	100	0
LAN-HIZKUNTZA				
BARNE HARREMANAK				
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia				
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	74	5	85	5
Barne harremanak idatziz				
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	70	1	75	5
Lan-bileretako idatziak	90	4	95	4
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	96	1	98	1
Barne harremanak ahoz				
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	94	3	96	3

Erakundearen barruko telefonozko harremanak	93	3	95	3
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	84	7	86	7
Baliabide informatikoak				
Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua	74	1	90	2
Euskarazko bertsioen erabilera	57	10	70	10
PERTSONEN KUDEAKETA				
Pertsonen kudeaketa				
Pertsonen kudeaketa	98	1	98	2
Laneko prestakuntza				
Laneko prestakuntza	35	13	55	15
Ikastaroen kudeaketa	50	41	55	45
KANPO HARREMANAK				
Administrazioa				
Administrazioekiko idatzizko harremanak	79	17	90	10
Administrazioekiko ahozko harremanak	77	4	85	4
Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, erakunde kolaboratzaileak, etab.				
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	75	10	80	10
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	74	1	80	5
Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.				
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	86	1	95	2
Beste entitateekiko ahozko harremanak	84	1	95	2
KUDEAKETA SISTEMA				
PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea				
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	87	-	92	-
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	100	-	100	-
Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko	90	-	95	-
Langile eta erakunde ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	89	-	95	-
ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea				
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-%100)	80	-	85	-
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-%100)	91	-	95	-
Euskara sortze hizkuntza (0-%100)	100	-	100	-
Dokumentuen estandarizazioa (0-%100)	66	-	70	-

HERRITARRAK ETA ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea				
HOElen betetze maila (0-%100)	67	-	75	-
Oharra: Goiko taulan azaltzen diren ehunekoak (zerbitzu hizkuntzari dagozkionak, batik bat) hizkuntza praktikaren gauzatzearekin lotuta daude, hau da, benetako erabilerarekin eta ez zerbitzua euskaraz jasotzeko aukera edo eskaintza bermatzearekin. Euskaraz zerbitzua jasotzeko aukera edo eskaintza bermatuta izango du herritarrak ia %100ean, herritarrei begira antolatutako ikastaro eta jardueren kasuan salbu.				

6. HIZKUNTZ IRIZPIDEAK, 2018-2022

LEHEN ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Udal instalazioetan udalak euskara sustatu duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala adieraztea beharrezkoa ikusten denean.

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Piktograma baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira: komunak, segurtasun oharrak (irteera, su-itzalgailua...).

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Piktograma baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira: “Debekatuta hemen aparkatzea”.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti (igogailuak, ate automatikoetako ahozko oharrak, ikus-entzunezkoak...).

Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak Udalaren iragarkietan, publizitatean eta kanpainetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko, honako jarraibideak beteko dira:

- Udalaren eta udalaren menpeko erakundeek idazki orotan euskara erabiliko da beti.
- Udalerrian zabaldu beharreko agirietan ere euskara erabiliko da beti.

- Iragarpen ofiziala egin beharreko agirietan euskara erabiliko da.

- Sortze hizkuntza euskara izango da, horretarako gaitasuna duten langileentzat.

Arreta berezia jarriko zaio udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeari, betiere komunikagarritasuna errazteari begira. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriek argiak eta ulergarriak izan behar dute.

Argitalpenei dagokienez, irizpide orokorra argitalpenetan beti euskara erabiltzea da.

Jendaurreko ekitaldiak

Ekitaldi publikoetan edota prentsaurrekoetan udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izan dezan saiaturiko da udala. Hartara, ekimen horietan euskara erabiliko da beti.

Ingurune digitala

Webgunea euskaraz irekiko da, eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia lehenengoz euskaraz bistaratuko zaio, errore oharrak barne.

Webgunea beste hizkuntza batean erabiltzen denean, Internet bidez lor daitezkeen idazki orok eta on line izapidetzeek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz egon beharko dute.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarietara eramango gaituztela bermatuko da.

Udalak sare sozialetan euskara erabiliko du.

3. Herritarrekiko harremanak

Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

Idatzizko harremanak

Harrerako mahaian udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak (inprimakiak...), eta, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal langileak herritarraren eskaeraren arabera euskarazkoa edo ele bietakoa emango dio.

Beste erakunderen baten inprimakien kasuan ere, udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorritz gero, udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Etxera bidaltzen diren agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak...).

Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak

Herritarrek idatziz euskaraz egindako eskaerei udalak euskaraz erantzungo die.

Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

Harrera

Telefonoz eta aurrez aurrekoan lehenengo hitza euskaraz izango da.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak).

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, herritarrek espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko

elkarriaz ere euskaraz izan behar dela, herritarrek espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak

Herritarra euskaraz hitz egiten hasten bada, udal langileak nahiz hautetsiak euskaraz erantzungo dio.

BIGARREN ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

4. Barne komunikazioa eta lan-tresnak

Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Udal instalazioetan udalak euskara lehenesten duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala adieraztea beharrezkoa ikusten denean.

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Piktograma baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira: komunak, segurtasun oharrak (irteera, su-itxalgailua...).

Gutun-azalak, orriak, fax-azalak eta abarrak euskaraz egongo dira. Egutegiak eta horma-irudiak ere euskaraz egongo dira.

Zigiluak euskaraz egongo dira.

Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

Informaziorako edota komunikaziorako tresnak, 3.2.2. Lan-bileretako idatziak Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskarazko gaitasun nahikorik ez badu, herritarrekin egiten den bezala, agiri hori itzuli egingo zaio; betiere, jatorrizkoa euskarazkoa dela argi utziz eta gaztelaniazkoa itzulpena.

3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak

Hemen adierazten diren jarraibideak dira memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuetarako batez ere, eta, erabili beharreko hizkuntza ofiziala dela-eta, legezko xedapenek ezartzen ez dituzten bestelako idatzizko jarduketetarako.

Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala

Erakundearen barruko lan-bileretako

ahozkoak Udal bileretako hizkuntza nagusia euskara izango da.

Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan kontuan hartuko da udaleko lan hizkuntza euskara izatea dela udalaren helburua. Batzordekideak bi hizkuntza jakitea hartu beharko da kontuan.

Erakundearen barruko telefonozko harremanak, 3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak

Lan ordutegiko ahozko harremanei dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatilaren beste aldean zein kalean) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza, udalaren irudia ere bada. Udal langileak euskaraz hizketan aritzeak euskara prestijiatu egiten du. Hori dela-eta, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du udalak.

Baliabide informatikoak

Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua

Euskarazko bertsioen erabilera

Idatzizko harremanetarako jarraibidea gauzatze aldera, lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei, kasuan kasuko euskarazko bertsioa egonez gero.

5. Pertsonen kudeaketa

Pertsonen kudeaketa

Pertsonen kudeaketa

Udal lanpostu baterako hautaketa probaren baitan, eskabide orrietan aukeratu ahal izango da hautatze prozesua zein hizkuntzatan egin, eta egindako aukera bermatzeko neurriak hartuko dira. Alde horretatik, epaimahaikideak izendatzerakoan, kontuan hartu beharko da hizkuntza gaitasuna.

Derrigortasun data iraganda duten lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuan, udalak probetako bat, gutxienez, euskaraz egitea eskatuko die hautagaiei. Horretarako, eta hautatze probei buruzko oinarriek hala agintzen dutenean, lanpostuaren funtzioak euskaraz zein gaztelaniaz betetzeko gaitasuna neurtzeko probak diseinatu eta egingo ditu hautatze probetako epaimahaiak.

Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskarazko gaitasun nahikorik ez badu, herritarrekin egiten den bezala, agiri hori itzuli egingo zaio; betiere, jatorrizkoa euskarazkoa dela argi utziz eta gaztelaniazkoa itzulpena. Gainerako kasuetan agiriak euskaraz egongo dira.

Laneko prestakuntza

Laneko prestakuntza

Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak euskaraz izan daitezen saiatuko da.

Udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarritz.

Ikastaroen kudeaketa

Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskarazko gaitasun nahikorik ez badu, herritarrekin egiten den bezala, agiri hori itzuli egingo zaio; betiere,

jatorrizkoa euskarazkoa dela argi utziz eta gaztelaniazkoa itzulpena. Gainerako kasuetan agiriak euskaraz egongo dira.

6. Kanpo-harremanak

Administrazioa

Administrazioekiko idatzizko harremanak

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatuko dira, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko dira. Haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara bakarrik erabiliko da, eta beraiegandik gutxienez euskaraz jasotzea eskatuko zaie.

Horrenbestez, horietako batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero—, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera, jakinarazpen administratiboak gutxienez euskaraz jaso nahi direla adieraziz.

EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara hutsa erabiliko da beti. Administrazio horietatik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera, jakinarazpen administratiboak gutxienez euskaraz jaso nahi direla adieraziz.

Administrazioekiko ahozko harremanak

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden erakunde publiko batekin hitz egin behar denean, telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatuko da. Hala, udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzeko, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du udalak.

Erakunde pribatuak: pertsona juridikoak, finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu- hornitzaileak...

Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak

Erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, bai-menak, dekretuak, gutunak...).

Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Ondorengo elkarrizketa ere euskaraz izatea sustatu behar da edo sustatuko da.

Izan ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, herritarrek gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak...

Beste entitateekiko idatzizko harremanak

Bestelako entitateetarako agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, bai-menak, dekretuak, gutunak...).

Beste entitateekiko ahozko harremanak

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Hala ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo berba euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, herritarrek espresuki gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

7. Kudeaketa sistema

Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea

Hizkuntzen kudeaketarako planteamendua, epe luzerako ikuspegiarekin eta epe ertain edota laburrerako helburuekin, eta horren ebaluazioa

Udalaren hizkuntza politikaren baitan, ordezkari politikoen eginkizuna izango da udalaren jarduera guztietan hizkuntza irizpideak betetzea eta betearaztea.

Hartara, udalaren kudeaketarako aginte organoetan hizkuntza ofizialen kudeaketa integratuko da, eta hizkuntza irizpideak zeharkakotasunez landuko dira. Udalaren jarduera guztietan, jarduera horiek gauzatu aurretik hizkuntzaren erabilera eragingo duten faktore guztiak hartuko dira aintzat, eta hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak hartuko dira. Nolanahi ere, udal jarduera batek hizkuntza kexak sortzen baditu, udalak kexa hori jaso eta dagokion sailari edo aginte organoari bideratuko dio, udalaren hizkuntza irizpideen arabera erantzuna eman dezan.

Udalaren hizkuntza politikaren baitan, udal ordezkariak (hautetsiak nahiz langileak) eredugarriak eta hizkuntz irizpideekin koherenteak izango dira, eta udalarekin harremanetan dauden herritarrekin, beste erakunde publikoekin, entitate pribatuekin eta abarrekin euskararen aldeko jarrera proaktiboa izango dute.

Horretarako guztirako, udal hautetsiek eta udal langileek UEMAren aholkularitza eta laguntza izango dituzte.

Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua

Udalaren aginte organoetan hizkuntza kudeaketa zeharkakotasunez lantzearekin bat, hizkuntza irizpideen jarraipena egiteko eta udalaren hizkuntza kudeaketaren Erabilera

Planaren Jarraipen batzordea kide hauek osatuko dute:

- 1.- Arduradun politikoak: garrantzi handia izango du UEMako ordezkariak edo euskara zinegotziak parte hartzea.
- 2.- Udal langileak: garrantzi handia izango du zerbitziburuek edo euskara arduradunek parte hartzea. Zerbitzuburu edo euskara arduradun horiez gain, langileek parte ahal izango dute euren zereginekin lotutako gaiak aztertzen direnean.
- 3.- UEMako hizkuntza normalizatzailea

4.- Udaleko euskara teknikariak

Batzordearen zeregin nagusiak hauek izango dira:

9. Kudeaketa planen jarraipena eta balorazioa egingo ditu.
10. Hizkuntza irizpideak eta helburuak udalaren kudeaketan zenbateraino bete diren jarraipena egingo du.
11. Kudeaketa planeko helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzen diren bermatzeko ardura izango du.
12. Jarraipen batzorde batetik besterako lanak eta ardurak bete diren baloratuko du, eta, behar izanez gero, egokitzapenak egingo ditu.
13. Udalbatzari eta Tokiko Gobernu Batzarrari jakinaraziko dio zein lan ildo hartuko diren, eta beharrezkoa bada zein lan talde eratu behar den.
14. Planean zehaztutako helburuak betetzeko lorpenen eta traben berri izango du.
15. Neurri zuzentzaileak proposatuko ditu (behar izanez gero).
16. Gutxienez, urtean bitan elkartuko da, eta hurrengo aldirako lan ildoak eta ekintzak proposatzea.

Herritarrak eta produktua edo zerbitzua: hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea

Herritarrak, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa

- **Zerbitzu enpresak**

Kontratua sinatu aurretik, euskarazko baldintza-agiriak prestatu eta zabalduko dira. Kontratazio guztietan udalak pleguen bidez, horiek behar diren kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, argi utziko du kontratatuko den enpresak udalean euskaraz aritu beharko duela.

Zerbitzu enpresei bidalitako agiriak euskaraz bidaliko dira.

Zerbitzu enpresa berriekin kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

- **Hornitzaileak**

Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (gonbidapena, aurrekontua...), euskararen baldintza zehaztuko da.

- **Kontratazio administratiboak**

Udalaren eta beraren erakunde autonomiadunen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan ezarritako neurriak dagozkion ala ez.

Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan eta abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 38.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraiki, honako neurriak hartuko dira:

- a. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.
- b. Herritarrentzako inprimakiak, oharak eta jakinarazpenak euskaraz edo ele bietan ematea bermatu beharko du kontratistak.
- c. Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu-prestazioa denean edo/eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak...) aipatu hizkuntza baldintza horiek betetzen ez badira edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntza gaitasuna duten

nahikoa langile jartzen ez badira, espedienteak irekiko da kalte-ordainak eskatzeko edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.

- **Diru-laguntzak**

Udalaren eta beraren erakunde autonomiadunen diru laguntzak esleitzerakoan —kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat—, udalak kontuan izango du diruz lagunduko den jardueraren hizkuntza, Gizarte Zerbitzuetako laguntzetan salbuespena egiteko aukerarekin. Zehazki, ondorengo eskatuko du gainerakoetan:

- d. Diru laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanetan, udalak euskaraz egiteko erraztasunak emango ditu.
- e. Diru laguntzaren xede den ekintzan euskara erabil dezaten sustatuko du udalak.
- f. Diru laguntzaren xede den ekintzaren publizitatean ere euskara erabiltzea.
- g. Beheragoko orrialdeetan hirigintza alorreko udal-baimenetako hizkuntza irizpideak jorratzen dituen puntuaren eraginkortasunerako, udalak zehaztuko du nola diruz lagundu beren jardunbideko errotulazioa euskarara aldatzen duten establezimenduetan.

Diru laguntza jasotzen duen ekintzatik ondoriozta daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatuko balitz, hizlari elebidunak hobestea, —hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea— euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezkeen.

- **Baimenak**

Udalak hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, ondorengo baldintzapean emango die: kale eta bide publikoetako hizkuntza erabileran bederen iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan, alegia euskara erabil dezatela.

Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari, eta, egotekotan, dauden laguntzen berri emango die.

Edozein delarik ere ekitaldia, udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan udalak laguntza eskainiko die euskara erabil dadin, jendaurreko ekitaldietan batik bat.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta udalaren hizkuntza baldintzei jaramonik egiten ez badie, udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimena ukatzea, fidantza ez bueltatzea, edo dagokiona) hizkuntza araudia bete ez dutenen aurka.

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenekin udalak hitzarmenak sinatuko ditu, haiek postuak jartzerakoan bete beharreko baldintza guztiekin batera euskararen baldintzak ere betetzeko helburuarekin eta udalak laguntza eskainiko die prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz jartzeko, baita girotzeko erabiliko den musikan euskararen erabilera bermatzeko ere.

Baimen eske datozen horiei udalarekin sinatzen duten hitzarmen horretan dauden hizkuntza jarraibideak betetzen laguntzeko, udalak hizkuntza aholkularitza eta laguntza teknikoak eskainiko dizkie hala eskatzen dutenei.

Bestelako baimenetan, hizkuntzari eragiten dioten neurrian, Udalak bermatuko du jendaurrean jartzen diren errotulu, ohar, seinale eta abarrak euskaraz egongo direla.

Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

Langileen kontratazioa eta barne-sustapena

Udaleko administrazio-atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek. Eta udalaren helburua izango da Funtzio Publikoaren Legeari kalterik egin gabe udaleko langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izatea.

Hizkuntza prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizun zehatzak. Legeek arautzen dutenari jarraituz, beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntza prestakuntza egokia lor dezaten.

Horretarako, irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lanorduetan hizkuntza prestakuntzako baimenak ematerakoan:

- Derrigor bete beharreko hizkuntza eskakizunek dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariei lehentasuna emango zaie.
- Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntza erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.
- Edozein kasutan, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langile guztiak izango dira kontuan hizkuntza prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionario zein lan-itunpeko langileak izan.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko langile baten hizkuntza prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei plangintzaldi hau arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 44. artikuluan ezartzen den lanpostutik kentzeko espedienteak hastea aztertuko du udalak.

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, udalak lanpostu zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien HEren pareko euskara gaitasuna eskatuko die. Betekizun hori EAEko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, II. tituluko I. kapituluaren 15.1 artikuluko d) puntuan, zehaztutakoari jarraituz egingo da.

1. atala: lanpostu zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

(...) d) Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigor hizkuntza eskakizuna eta hala badagokio derrigortasun data (...)

Beraz, udalean, edozein lanpostu legez hornitzeko, dagokion hizkuntza eskakizunari igarotako derrigortasun data ezarriko zaio langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua izan dezan.

Lanpostu zerrendakoa ez den beste lanposturen bat sortu edo hornitu behar den kasuetan, lanpostu horrek dituen funtzioen araberrako HE ezarriko zaio, eta langile gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du. Betiere, 86/1997 Dekretuko 5. xedapen gehigarriak dioenari jarraiki.

Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den ondorengo euskara-mailetatik kasuan kasuko kontrataziokoan eskatuko dena:

- Ahoz eta idatziz euskara ulertzea (1 HE).
- Euskara ulertzea, mintzatzea eta irakurtzea (2 HE).
- Euskara ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea (3 HE).
- Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmenean (4. HE).

Beharrezkoa denean, beraz, udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei eta kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sina daitezen sustatuko du.

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hautetsi-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izateko.

[Lidergoa eta parte-hartzea](#)

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hautetsi-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izateko.

7. ADMINISTRAZIO ATAENSAILKAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua dagoeneko seigarren plangintzaldian dago, 2018-2022 dagokionean hain zuzen ere. 2016ko erroldaren arabera Bermeoko Udalari dagokion derrigortasun-indizea [euskaldunak + (ia-euskaldunak/2)] %78,63 da (11. art.), hortaz, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, 4. helburu mailakatua betetzea dagokio II. plangintzaldi honetarako (17.d) artikulua).

Administrazio-atalak: euskarazkoak eta elebidunak

86/1997 Dekretuak administrazio atalen sailkapena zehazten du:

- Beren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio atalak izango dira administrazio atal elebidunak.
- Beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio atalak izango dira euskarazko administrazio atalak.

Sailkapen horretan sakonduz, “Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia. VI. Plangintzaldia (2018-22)” dokumentuak atal mota bakoitzak zer baldintza bete behar dituen zehazten du.

Administrazio atal elebidunak

VI. plangintzaldirako hizkuntza irizpide orokorren arabera, atal elebidunak dira euren berezko eginkizunak bai euskaraz, bai gaztelaniaz, bietan betetzen dituzten atalak eta atal elebidun izendatuko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten atalak:

1. Atala osatzen duten lanpostuen % 60tik gorakoek derrigortasun-data ezarria izatea.
2. Atalburu den langileak dagokion hizkuntza-eskakizuna edo bat baxuago egiaztatua izatea, eta atala osatzen duten gainerako langileen %60tik gorakoek dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea.

Euskarazko administrazio atalak

VI. plangintzaldirako hizkuntza irizpide orokorren arabera, euskarazko atalak dira bere eginkizunak batez ere euskaraz betetzen dituztenak eta euskarazko atal izendatuko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten atalak:

1. Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztien edo ia guztien lanpostuetan derrigortasun-data ezarrita izatea.
2. Atalburu den langileak eta gainerako langile guztiek edo ia guztiek diharduten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
3. Zeregin gehienak euskaraz betetzea, betiere herritarrek zerbitzu-hizkuntza hautatzeko duten eskubidea urratu gabe.

Horrenbestez, Bermeoko Udalean sail eta zerbitzu guztiak euskarazko atal izendatuko ditugu. Ondorioz, atal guztietan zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izango da: hau da, agiriaren sorburu-hizkuntza euskara izango da, baita lehen hizkuntza ere jendaurreko harremanetan eta atalaren gainerako zereginetan ere.

Administrazio-atala	SAILKAPENA	Langile-kopurua guztira
Idazkaritza	Euskarazko administrazio atala	8
Euskara	Euskarazko administrazio atala	4
Antolakuntza eta Teknologi Berriak	Euskarazko administrazio atala	7
Kultura eta Hezkuntza	Euskarazko administrazio atala	40
Gazteria	Euskarazko administrazio atala	1
Udaltzaingoa	Euskarazko administrazio atala	29

Langileria	Euskarazko administrazio atala	3
Laneko prebentzioa	Euskarazko administrazio atala	1
Ekonomia eta Ogasuna	Euskarazko administrazio atala	10
Merkataritza, Sustapena eta Turismoa	Euskarazko administrazio atala	9
Hirigintza, Obra eta Ingurumena	Euskarazko administrazio atala	7
Zerbitzuak	Euskarazko administrazio atala	60
Osasuna	Euskarazko administrazio atala	1
GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA		
Etxez etxeko zerbitzua	Euskarazko administrazio atala	17
Zaharren egoitza	Euskarazko administrazio atala	51
Administrazio orokorra	Euskarazko administrazio atala	14
KIROL PATRONATUA		
Kirola	Euskarazko administrazio atala	9

Horiek horrela, euskara planak era honetan eragingo du Bermeoko Udalean:

Guztira 270 lanpostu dira. Horietatik, 266 lanpostuk dute derrigortasun data ezarrita eta 244 langilek egiaztatu dute dagokion HE.

Lanpostuen zerrendatik kanpo 14 langile daude eta horietatik 10ek dute egiaztatuta deialdia egin zenean eskatutako hizkuntza eskakizuna.

Bestalde, Beruola, SA-ko lanpostuak daude: 5 lanpostu dira eta batek ere ez du egiaztatuta legokiokoen hizkuntza eskakizuna. Azken horiek ez dute derrigortasun datarik, erakundearen izaera dela-eta.

Horiek horrela, Bermeoko Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko planean lanpostu horietan guztietan jarduten diren langile guztiak sartuko dira, lanpostuen zerrendakoak izan, zein ez.

8. LANPOSTUZERRENDA

Lanpostuen izena	K	TL	ML	Osagarri espezifiko	HE	Derrig data	D	PN	HS	EB	Oharrak
IDAZKARITZA SAILA											
IDAZKARI OROKORRA	1	A1	28	26.982,59	4	90.12.31	B	F	L	NMG	Hutsik
ADMIN. OROK. TEKNIKARIA	1	A1	24	20.610,49	4	00.07.07	B	F	L	GMT	
ADMINISTRARIA	1	C1	16	15.754,13	3	01.01.04	A	F	L	BAT	Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,59	3	98.12.31	A	F	L	EG	
AKTA ETA ZIURTAG. ADM. LAG.	1	C2	12	16.965,41	3	91.01.01	A	F	L	EG	
JAKINARAZLEA - TELEFONISTA	1	C2	11	14.801,91	2	90.12.31	A	F	L	EG	Iraungitz
JAKINARAZLEA - ADM. LAG.	1	C2	11	14.801,91	3	17.03.08	A	F	L	EG	Hutsik
JAKINARAZLEA - ORDENANTZA	1	C2	11	14.801,91	2	17.03.08	A	F	L	EG	Hutsik (2)
Guztira Idazkaritza	8										
EUSKERA SAILA											
EUSKERA TEKNIKARIA	1	A2	18	21.914,00	4TG	—	A	F	L	EMT	
TEKNIKARI TREBATZAILEA	1	A2	17	22.105,89	4TG	14.11.27	A	F	L	EMT	Hutsik
ITZULTZAILEA	1	C1	18	18.426,68	4TG	—	A	L	L	BAT	Iraungitz
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,59	3	03.11.27	A	F	L	EG	Hutsik
Guztira Euskera	4										
ANTOLAKUNTZA ETA TEKNOLOGI BERRIAK											
GOI MAILAKO TEKNIKARIA	1	A1	22	17.161,28	4	00.12.01	A	F	L	(6)	Hutsik
GOI MAILAKO TEKNIKARIA	1	A1	22	17.161,28	4	09.09.04	A	F	L	GMT	Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,59	3	14.11.27	A	F	L	EG	Hutsik
INFORMAZ. ETA ERREG. ADM. LG.	1	C2	12	16.965,41	3	93.12.31	A	F	L	EG	
ADMINISTRARI LAG. Taldeko ard.	1	C2	12	16.344,59	3	17.03.08	A	F	L	EG	Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2	C2	12	16.344,59	3	09.09.04	A	F	L	EG	Hutsik
Guztira ATB	7										
KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA											
LIBURUT/ ARTXIBO KOORDINAT.	1	A1	22	17.161,29	4	92.12.31	A	F	L	GMT	Hutsik
LIBURUT/ ARTXIBO TEKNIKARIA	1	A2	18	21.914,00	4	04.12.03	A	F	L	(4)	Hutsik
LIBURUT/ ARTXIBO LAGUNTZAIL	1	C1	15	15.165,44	3	04.12.03	A	F	L	BAT	Hutsik
LIBURUTEGIKO ATEZAINA	1	LT	10	14.686,30	2	98.12.31	A	F	L	EE	Hutsik
LIBURUTEGIKO ADM.LAGUNTZ.	1	C2	12	16.344,59	3	92.01.01	A	F	L	EG	
TEKNIKARI KOORDINATZAILEA	1	A2	22	19.645,82	4	07.12.04	A	F	L	EMT	Hutsik
GIZARTE-KULTUR ANIMATZAILEA	1	C1	17	16.849,39	3	90.12.31	A	F	L	BAT	
GIZARTE-KULTUR ANIMATZAILEA	1	C1	17	16.849,39	3	05.12.02	A	F	L	BAT	Hutsik

Lanpostuen izena	K	TL	ML	Osagarri espezifiko	HE	Derrig data	D	PN	HS	EB	Oharrak
KULTURAKO ADM. LAGUNTZ	1	C2	12	16.344,59	3	98.10.01	A	F	L	EG	
UDAL MUSIKA ESKOLAKO. AD. LG.	1	C2	12	16.344,59	3	92.01.01	A	F	L	EG	
GIZ.KULTURA ETXEO ATEZAINA	2	LT	10	14.686,30	2	09.09.04	A	L	L	EE	Hutsik
LANB. HASTAPEN IKAST. ZUZEND.	1	A2	21	15.899,70	4	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik
LANB. HASTAPEN IKAST. IRAKASLEA	8	A2	17	15.888,41	3	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik
LANB. HASTAPEN IKAST. ADM. LAG.	1	C2	12	16.344,59	3	10.07.14	A	L	L	EG	Hutsik
MUSIKA ESKOLAKOZUZENDARIA	1	A2	17	19.917,42	4	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik
MUSIKA ESKOLAKO IKASKETA BURU	1	A2	17	16.462,66	3	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik
MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA	16	A2	17	13.008,40	3	10.07.14	A	L	L	EMT	Hutsik
Guztira Kultura eta Hezkuntza	40										
GAZTERIA SAILA											
GAZTE INFORMATZAILEA	1	A2	18	17.352,59	4	09.09.04	A	L	L	EMT	Hutsik
Guztira Gazteria	1										
UDALTZAINGOA											
UDALTZAINBURUA	1	C1	19	20.270,65	3	93.12.31	B	F	L	BAT	Ofiziala
AGENTE LEHENAK	5	C1	15	17.104,18	2	07.12.04	A	F	L	BAT	BTP
UDALTZAINA	2	C1	14	16.244,84	2	00.12.01	A	F	L	BAT	BTP
UDALTZAINA	15	C1	14	16.244,84	2	90.12.31	A	F	L	BAT	BTP
UDALTZAINA	1	C1	14	16.244,84	2	05.12.02	A	F	L	BAT	BTP
UDALTZAINA	1	C1	14	16.244,84	2	06.11.29	A	F	L	BAT	BTP
UDALTZAINA	1	C1	14	16.244,84	2	07.12.04	A	F	L	BAT	BTP
BULEGOETAKO UDALTZAINA	2	C1	14	15.623,97	2	90.12.31	A	F	L	BAT	1 Hutsik
UNIDADE ERAGILEKO LAGUNTZ.	1	C1	14	15.623,97	2	02.03.27	A	F	L	BAT	Hutsik (2)
Guztira Udaltzaingoa	29										
LANGILERIA SAILA											
ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	23	21.270,79	4	92.01.01	B	F	L	EMT	Hutsik
NOMINETAKO ADM. LAGUNTZ.	1	C2	13	16.583,20	3	98.12.31	A	F	L	EG	
LANGILERIAKO ADM. LAGUNTZ.	1	C2	13	16.583,20	3	98.12.31	A	F	L	EG	
Guztira Langileria	3										
LANEKO PREBENTZIO ZERBITZUA											
ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	18	21.722,41	4	04.12.03	A	F	L	(5)	Hutsik
Guztira Laneko Prebentzioa	1										
EKONOMIA ETA OGASUN											
EKON. ZERBITZUB-KONTU-HARTZ	1	A1	27	27.029,21	4	90.12.31	B	F	L	NMG	Hutsik
EKON. OND. ERRENT. ABT	1	A1	25	23.236,82	4	93.12.31	B	F	L	GMT	
DIRUZAINA	1	A2	22	19.645,83	4	92.01.01	A	F	L	EMT	Hutsik
ORDAINRAZ/ ERRENTA ADM.	1	C1	16	15.492,14	3	92.01.01	A	F	L	BAT	Hutsik
EROSK. HORNIK. BILTEG. ADM.	1	C1	16	15.492,14	3	92.01.01	A	F	L	BAT	Hutsik
KONTABILIDADEKO ARDURAD.	1	C1	17	16.528,85	3	98.12.31	A	F	L	BAT	Hutsik
DIRUZAIN ADM. LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.965,41	2	98.12.31	A	F	L	EG	
DIRUZAIN ADM. LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.965,41	3	14.11.27	A	F	L	EG	Hutsik
ORDAIN / ERRENTA ADM. LAG.	1	C2	12	16.344,59	3	93.12.31	A	F	L	EG	
KONTABILIDADEKO ADM. LAG.	1	C2	13	16.583,20	3	92.01.01	A	F	L	EG	
Guztira Ekonomia eta Ogasun	10										
Lanpostuen izena	K	TL	ML	Osagarri espezifiko	HE	Derrig data	D	PN	HS	EB	Oharrak
MERKATARITZA, SUSTAPEN ETA TURISMO SAILA											
ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	21	12.626,15	4	09.09.04	A	L	L	(7)	Hutsik
GIDA TURISTIKOA / DENDARIA	1	C1	15	15.165,44	3	17.03.08	A	L	L	BAT	Hutsik
INFORMATZAILEA / GIDA TURISTIK.	1	C2	12	16.344,59	3	09.09.04	A	L	L	EG	Hutsik
INFORMATZAILEA / GIDA TURISTIK.	1	C2	12	16.344,59	3	14.11.27	A	L	L	EG	Hutsik
BEHARGINTZAKO ZUZ.-KOORDINATZ	1	A2	23	24.950,39	4	17.03.08	A	L	L	EMT	Hutsik

LAN ORIENTATZAILEAK	3	A2	18	22.121,79	4	17.03.08	A	L	L	EMT	Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,59	3	17.03.08	A	L	L	EG	Hutsik
Guztira Merkataritza, sust. Turismo	9										
URIGINTZA, OBRA ETA INGURUMEN SAILA											
ADMIN. OROK. TEKNIKARIA	1	A1	24	20.610,51	4	01.07.26	B	F	L	GMT	
ARKITEKTOA	1	A1	26	25.264,08	4	98.12.31	B	F	L	GMT	Hutsik
OBRETAKO ARKIT. TEKNIKOA	1	A2	21	20.301,37	4	98.12.31	A	F	L	EMT	Hutsik
ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	18	21.914,00	4	98.10.01	A	F	L	EMT	
ADMINISTRARIA	1	C1	15	16.136,93	3	92.01.01	A	F	L	BAT	
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.965,41	3	98.12.31	A	F	L	EG	
DELINEATZAILEA	1	C1	14	15.547,58	3	98.12.31	A	F	L	BAT	Hutsik
Guztira Urigintza, obra ingurumen	7										
ZERBITZU SAILA											
ZERBITZUETAKO ARDURADUNA	1	A2	24	23.234,44	4	04.04.01	B	F	L	(3)	Hutsik
ADMINISTRARIA	1	C1	15	15.165,44	3	93.12.31	A	F	L	BAT	Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,59	3	14.11.27	A	F	L	EG	Hutsik
GARBIKETA ARDURADUNA	1	C1	18	16.145,55	2	92.01.01	A	F	L	BAT	
BIDE ETA HERRI LAN. TALDEBURU	1	C2	15	17.059,64	2	90.03.25	A	F	L	EG	G B «B»
AZOKAKO ARDURADUNA	1	C2	11	16.727,51	2	93.12.31	A	F	L	EG	
HIRI HONDAKIN SOL. BILK GIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	10.07.14	A	F	L	EG	
HIRI HONDAKIN SOL. BILK GIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	92.12.31	A	F	L	EG	
UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAIL.	1	LT	8	12.672,16	1	14.11.27	A	F	L	EE	Hutsik
UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAIL.	1	LT	8	12.672,16	1	07.12.04	A	F	L	EE	
UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAIL.	1	LT	8	12.672,16	1	05.12.01	A	F	L	EE	Hutsik
UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAIL.	1	LT	8	12.672,16	1	01.09.06	A	F	L	EE	
UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAIL.	1	LT	8	12.672,16	1	14.11.27	A	F	L	EE	Hutsik
ESKOLETAKO GARBITZAILEA(Ard)	1	LT	8	14.303,08	1	90.03.25	A	F	L	EE	+ Adsk.
ESKOLETAKO GARBITZAILEA	1	LT	8	12.672,16	1	07.12.04	A	F	L	EE	Hutsik
ESKOLETAKO GARBITZAILEA	1	LT	8	12.672,16	1	10.07.14	A	F	L	EE	Hutsik
ESKOLETAKO GARBITZAILEA	1	LT	8	12.672,16	1	14.11.27	A	F	L	EE	Hutsik
ESKOLETAKO JAGOLEA	1	LT	10	14.686,30	1	95.07.31	A	F	L	EE	
KALE GARBITASUNEN PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	00.12.01	A	F	L	EE	Hutsik - GB
KALE GARBITASUNEN PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	05.12.01	A	F	L	EE	Hutsik - GB
KALE GARBITASUNEN PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	10.07.14	A	F	L	EE	Hutsik - GB
KALE GARBITASUNEN PEOIA	6	LT	8	14.486,23	1	90.03.25	A	F	L	EE	
KALE GARBITASUNEN PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	01.09.06	A	F	L	EE	
KALE GARBITASUNEN PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	10.07.14	A	F	L	EE	Hutsik - GB
KALE GARBITASUNEN PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	14.11.27	A	F	L	EE	Hutsik - GB
BIDE ETA HERRI LANETAKO PEOIA	1	LT	8	15.141,51	1	10.07.14	A	F	L	EE	
Lanpostuen izena	K	TL	ML	Osagarri espezifiko	HE	Derrig data	D	PN	HS	EB	Oharrak
BIDE ETA HERRI LANETAKO PEOIA	4	LT	8	15.141,51	1	14.11.27	A	F	L	EE	Huts 2- GB
BIDE ETA HERRI LANETAKO PEOIA	1	LT	8	15.141,51	1	92.12.31	A	F	L	EE	
BIDE ETA HERRI LANETAKO PEOIA	2	LT	8	15.141,51	1	92.01.01	A	F	L	EE	
HIRI HONDAKIN SOL BILK PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	14.11.27	A	F	L	EE	
HIRI HONDAKIN SOL BILK PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	14.11.27	A	F	L	EE	
HIRI HONDAKIN SOL BILK PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	90.03.25	A	F	L	EE	
UDAL AZOKAKO GARBITZAILEA	1	LT	8	12.672,16	1	10.07.14	A	F	L	EE	
LORAZAINTZAKO PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	90.03.25	A	F	L	EE	
LORAZAINTZAKO PEOIA	1	LT	8	14.486,23	1	01.09.06	A	F	L	EE	
LORAZAINTZAKO PEOIA	2	LT	8	14.486,23	1	17.03.08	A	F	L	EE	Hutsik
BIDE ETA HERRI LANET GIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	90.03.25	A	F	L	EG	Hutsik G B «C»
KALE GARBIKETAKO GIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	92.01.01	A	F	L	EG	Hutsik G B «C»

KALE GARBIKETAKO GIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	17.03.08	A	F	L	EG	Hutsik G B «C»
KALE GARBIKETAKOGIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	90.03.25	A	F	L	EG	
KALE GARBIKETAKO GIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	92.01.01	A	F	L	EG	Hutsik G B «C»
KALE GARBIKETAKOGIDARIA	1	C2	11	16.727,51	1	00.12.01	A	F	L	EG	G B «C»
LORAZAINTZAKO OFIZIALA	1	C2	12	16.965,41	1	91.11.04	A	F	L	EG	
LORAZAINTZAKO OFIZIALA	1	C2	12	16.965,41	1	17.03.08	A	F	L	EG	Hutsik
OFIZIALA (Margolaria)	1	C2	12	16.965,41	1	93.01.03	A	F	L	EG	Hutsik
OFIZIALA (Igeltseroa)	1	C2	12	16.965,41	1	93.01.03	A	F	L	EG	G B «B»
OFIZIALA (Lurperatzailea)	1	C2	12	16.965,41	1	90.03.25	A	F	L	EG	
OFIZIALA (Iturgina)	1	C2	12	16.965,41	1	90.03.25	A	F	L	(1)	Hutsik
OFIZIALA (Iturgina)	1	C2	12	16.965,41	1	99.12.03	A	F	L	(1)	
ITSASONTZI MANTENTZE LANGILEA	1	C2	12	16.965,41	1	17.03.08	A	F	L	EG	Hutsik
Guztira Zerbitzu saila	60										
OSASUNA											
GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	A2	19	14.442,43	3	94.12.31	A	F	L	EMT	Zerbitzuald
Guztira Osasuna	1										

KODEAK

K: Kopurua EB: Eskatutako Baldintzak
 TL: Taldea NMG: Nazio mailako gaitasuna
 ML: Maila GMT: Goi
 mailako titulua HE: Hizkuntza
 Eskakizuna EMT: Erdi
 mailako titulua
 D: Dedikazioa BAT: Batxilergo, L.H. 2 mailako titulua edo baliokidea
 A: Arrunta EG: Eskola graduatua, L.H. 1. mailako titulua edo baliokidea
 B: Berezia EE: Eskolaritate egiaztagiria
 PN: Plantilla GB: Gida baimena
 F: Funtzionarioa (1) Lehen graduako lanbide titulua edukitzea edota EG eta «B»
 motatako gidatzeko baimena. L: Laboral finkoa (2) Bigarren jardueran hartzeko
 moduko lanpostua

Lanpostuen Izena	K	TL	ML	Osaga. Espezif.	HE	Derr. data	D	PN	HS	EB	Oharrrak
ETXEZ ETXEGO SAILA											
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	4	LT	11	18.087,56	1	92.01.01	A	L	L	EE	Hutsik
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	1	LT	11	18.087,56	1	92.01.01	A	L	L	EE	
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	1	LT	11	18.087,56	1	92.01.01	A	L	LO	EE	
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	1	LT	11	12.057,16	1	03.11.27	A	L	LO	EE	D.P. Hutsik
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	1	LT	11	12.057,16	1	06.11.20	A	L	LO	EE	D.P. Hutsik
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	7	LT	11	12.057,16	1	06.11.20	A	L	LO	EE	D.P. Hutsik
ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILEA	2	LT	11	12.057,16	1	06.11.20	A	L	LO	EE	D.P. Hutsik
ZAHARREN EGOITZA											
ASS ARDURADUNA	1	A2	20	16.285,71	3	01.11.30	A	L	LO	EMT	Hutsik
ERIZAINA	5	A2	17	12.869,87	3	01.11.30	A	L	LO	EMT	Hutsik
ARRETA ZUZENEKO LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.965,43	1	92.01.01	A	L	L	EG	Hutsik
ARRETA ZUZENEKO LAGUNTZAILEA	5	C2	12	16.965,43	1	92.01.01	A	L	LO	EG	
ARRETA ZUZENEKO LAGUNTZAILEA	2	C2	12	16.965,43	1	01.07.26	A	L	LO	EG	
ARRETA ZUZENEKO LAGUNTZAILEA	4	C2	12	16.965,43	1	92.01.01	A	L	L	EG	Hutsik
ARRETA ZUZENEKO LAGUNTZAILEA	3	C2	12	16.965,43	1	06.11.20	A	L	LO	EG	Hutsik
ARRETA ZUZENEKO LAGUNTZAILEA	14	C2	12	16.965,43	1	10.03.01	A	L	LO	EG	Hutsik
SUKALDE ARDURADUN	1	C1	15	15.874,93	1	92.12.31	A	L	L	BAT	
SUKALDARIA	1	LT	10	15.956,59	1	92.01.01	A	L	L	EE	Hutsik
SUKALDARI LAGUNTZAILEA	1	LT	9	14.395,30	1	92.01.01	A	L	L	EE	Hutsik
SUKALDARI LAGUNTZAILEA	2	LT	9	14.395,30	1	92.01.01	A	L	L	EE	
GARBITASUN LAGUNTZAILEA	2	LT	8	10.771,34	1	92.01.01	A	L	LO	EE	%85 Hutsik
GARBITASUN LAGUNTZAILE	1	LT	8	10.771,34	1	01.11.30	A	L	LO	EE	%85 Hutsik
GARBITASUN LAGUNTZAILEA	1	LT	8	12.672,17	1	01.11.30	A	L	LO	EE	Hutsik
GARBITASUN LAGUNTZAILEA	2	LT	8	12.672,17	1	92.01.01	A	L	L	EE	Hutsik
GARBITASUN LAGUNTZAILEA	1	LT	8	12.672,17	1	92.01.01	A	L	L	EE	Hutsik
GARBITASUN LAGUNTZAILEA	2	LT	8	12.672,17	1	92.01.01	A	L	L	EE	Hutsik
GARBITASUN LAGUNTZAILEA	1	LT	8	6.336,09	1		A	L	L	EE	%50 Hutsik
MANTENU OFIZIALA	1	C2	12	16.707,11	1	93.01.01	A	L	L	EG	
Lanpostuen Izena	K	TL	ML	Osaga. Espezif.	HE	Derr. data	D	PN	HS	EB	Oharrrak
ADMINISTRAZIO OROKORRA											
ZUZENDARIA	1	A1	24	23.734,47	4	94.01.01	A	F	L	GMT	
OGZ ANTOLATZEKO TEKNIKARIA	1	A2	20	16.285,71	4	04.04.29	A	L	LO	GMT	Hutsik
ADMINISTRARI	1	C1	16	15.492,13	3	92.01.01	A	L	LO	BAT	Hutsik
KONTULARIA	1	C1	15	15.165,44	3	92.01.01	A	L	L	BAT	
ADMINISTRARI	1	C1	16	15.492,13	3		A	L	LO	BAT	Sortu berria Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,62	3	93.12.31	A	L	LO	EG	Iraungi
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,62	3	91.12.31	A	L	LO	EG	Hutsik
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1	C2	12	16.344,62	3		A	L	LO	EG	Hutsik
GIZARTE LANGILEA	1	A2	19	14.442,07	3	91.12.31	A	L	L	EMT	
GIZARTE LANGILEA	2	A2	19	14.442,07	3	91.12.31	A	L	L	EMT	Hutsik
GIZARTE LANGILEA Z.E. eta E-E A.	1	A2	19	14.442,07	3		A	L	L	EMT	Hutsik
OGZetako ADMINISTRARIA	1	C1	14	15.165,44	3	05.11.28	A	L	LO	BAT	Hutsik

KODEAK

K: Kopurua	EB: Eskatutako Baldintzak
TL: Taldea	NMG: Nazio Mailako Gaitasuna
ML: Maila	GMT: Goi Mailako
Titulua HE: Hizkuntza Eskakizuna	EMT: Erdi
Mailako Titulua	
D: Dedikazioa	BAT: Batxilergo, L.H. 2 Mailako titulua edo
baliokidea A: Arrunta	EG: Eskola Graduatua, L.H.1 M titulua edo
baliokidea	
B: Berezia	EE: Eskolaritate egiaztagiria
PN: Plantila	Gb: Gidabaimena
F: Funtzionarioa	(1) Lehen Graduko Lanbide titulua eukitea edota EG eta «B» mailako
Gidatzeko karneta. L: Laboral Finkoa	(2) Bigarren jardueran hartzeko moduko lanpostua
LT: Langile-taldea	(3) Herri lanetako ingeniari teknikoa
	(4) Bibliotekonomia eta dokumentazioa, Dokumentazioan lizentziatua.
	(5) Lan arriskuei aurre egiteko goi mailako titulua, hiru espezialitatekin (Lan segurtasuna, Higiene industrial eta ergonomia eta psikosozioologia)
	(6) Informatika-ingeniaria lizentziaduna
	(7) Turismo enpresetako eta jardueretako teknik.

BERMEOKO UDALAREN KIROL PATRONATUKO LANPOSTUAREN ZERRENDA URTEA 2017

Lanpostuaren izena	G.R	Harreman mota	Dotaz zenb.	Titulu akademi	Hord mot.	Hizk. Perfil.	Der. data	Ezaguera espezifikak	Ordainsa B.M.	Osag.espez.	Oharra
Zuzendaria	A1	F	1	G.M.T	K	4	94/12/31	INEF/ IVEF	22	17.161,34	Betegabea
Mantenimenduko agintaria	C1	L	1	B.A.T.	K	2	90/12/31		15	15.874,88	
Administraria	C1	L	1	B.A.T.	K	3	93/12/31		15	15.165,50	Betegabea
Kirol monitore	C2	L	1	E.G.	K	2	93/12/31	Aerobic eta muskulazio monitor lehen sorospen titu	14	17.442,04	Betegabea
Igeriketako monitore-sorosle	C2	L	2	E.G.	K	2	2000/12/31	Igeriketako monit	14	17.442,38	
						2	93/12/31	Ur-soroslea			
Kontrolatzailea	LT	L	1	E.E.	K	2	90/12/31		9	14.283,78	Betegabea
Sarbideetako Kontrolatzailea	LT	L	1	E.G.	K	2	03/11/27		9	14.283,78	
Mantentze Ofiziala	C2	L	1	E.G.	K	2	02/12/05		12	8.482,74	Betegabea denpora erdian

LT: Langile taldea

- (3) Herri lanetako ingeniari teknikoa
- (4) Bibliotekonomia eta dokumentazioa.
Dokumentazioan lizentziaduna.
- (5) Lan arriskuei aurre egiteko goi mailako titulua, hiru espezialitatekin (Lan segurtasuna, Higiene industrialak eta ergonomia eta psikosoziala)
- (6) Informatika-ingeniaritza lizentziaduna
- (7) Turismo enpresetako eta jardueretako teknikaria

Oharra: “Erabilera Plan honek euskararen erabilera du ardatz, beste hizkuntzen erabilera ez du oro har kontuan hartzen; beraz “euskaraz egongo da”, “euskara erabiliko da”, “euskaraz jarriko da” edo antzeko esaldiak jasotzen direnean ez du baztertzen beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea. Edonola, bertako hizkuntza den euskararen normalizazioa helburu, Udalak zein kontratistek, herritarren eskubideak bermatzeko legediak eskatzen duen kasuetan erabiliko dute gaztelania, beti euskararekin batera.”